

Jarduera -memoria





Bidasoa activa
Bidasoa bizirik

BATZAR NAGUSIA

Cristina Laborda Albolea

Irungo Alkatea

Igor Enparan Araneta

Hondarribiko Alkatea

ADMINISTRAZIO-KONTSEILUA

Nuria Alzaga Martínez

Presidentea

Estitxu Urtizberea Sorzabal

Presidenteordea

Sergio Javier Alzaga

Batzorkidea

Urkiri Salaberria Gracia

Batzorkidea

Oihana Briones Aramendi

Batzorkidea

Thania Pazos Gonzalo

Batzorkidea

Carlota Sanz Martínez

Batzorkidea

Gonzalo Carrión Insausti

Batzorkidea

Garoa Lekuona Izeta

Batzorkidea

Eva Fernández Tolosa

Idazkaria

ZUZENDARITZA TALDEA

Eva Fernández Tolosa

Zuzendari Gerentea

María Climent Pons

Ekonomia, Finantza eta Giza Baliabideen Arloa

Virginia Gil Rodríguez

Zeharkako Programak

Vicky Alquezar Schepens

Behatokia, Europako Lankidetzeta eta Patzuergoa

Silvia Istillarte Pardo

Lehiakortasuna eta Berrikuntza

Izaskun Iridoy Olaizola

Ekintzailletza eta Jarduera Berria

Cristina Gutiérrez Alonso

Turismoa

Ismene Tapia Arruabarrena

Formakuntza eta Enplegua

Aurkibidea

SARRERA

01 LEHIAKORTASUNA ETA BERRIKUNTZA

02 EKINTZAILETZA ETA JARDUERA BERRIA

03 FORMAKUNTZA ETA ENPLEGUA

04 TURISMOA

05 BEHATOKIA, EUROPAKO LANKIDETZA ETA PATZUERGOA

06 PROIEKTUAK

07 BIDASOA BIZIRIK KOPURUTAN / 2023

08 URTEKARI SOZIOEKONOMIKOA / 2023

ESKER ONAK

Sarrera

2023an ere, Bidasoa bizirik-en jardunaren ardatz nagusiak lankidetzeta eta berrikuntza izan dira, ekitaldiko politikak eta jarduerak diseinatu eta ezartzeari dagokionez. Jarduera horiek Irungo Udalak eta Hondarribiko Udalak eginiko enkargu eta kudeaketa-planek ondorioa izan dira.

Aurreko ekitalditik, gizarteak Garapen Jasangarriko Helburuetara lerratu du bere jarduera, gure ekarpena hobetzeko eta 2030 Agendaren eskakizunekin bat etortzeko.

2023an, Suspertze, Transformazio eta Erresilientzia Planaren barruko proiektuak gauzatzen ari dira. Plan hori Gobernuaren estrategia bat da, Europak COVID-19aren krisiak eragindako kalteak konpontzera bideratutako funtsak bideratzeko, erreformen eta inbertsioen bidez. Ildo horretan, oraindik ere nabarmentzekoa da sozietateak Bidasoa bizirik bera barne hartzen duen eskualdeko Udalek eta Sozietate Publikoek hainbat ekimenetara aurkez ditzaketen proiektuen koordinatzaile eta sustatzaile gisa izan duen zeregina. Aurrerapenez eta proaktiboki lan egin da proiektuen aurkezpenari dagokionez, eta identifikatu eta lehenetsi dira estrategikoak eta finantzaketa-aukera errealek dituztenak, deialdietan eskatutako baldintza zorrotzak bete ditzaketenak, administrazio-baldintzei, epeei eta abarri dagokienez.

Ekitaldi hau proaktiboa izaten jarraitu dugu enpresei eta enpleguari laguntzeko eskumena duten erakundeetatik datozen ekintzetan eta deialdietan, bitarteko eragile gisa, gure lurraldera beren politikak hurbiltzeko eta egokitzeko. Era berean, garrantzitsua izan da gure enpresen, ekintzaileen eta enplegua bilatzen edo hobetzen ari diren pertsonen behar zehatzak erakunde

horiei helaraztea, beren programak hautemandako benetako premiara egokitzeko eta beren programa eta ekintzetan kontuan hartzeko.

2023an, Berdintasun Planaren esparruan, Bidasoa bizirik Emakunderen erakunde laguntzaile gisa nabarmendu da, eta agentziak erakundean emakumeen eta gizonen berdintasunerako politika bat garatzeko azken urteetan hartutako ekintzak eta konpromisoak baloratu ditu. Aitorpen horri esker, Emakunderen erakunde laguntzaileen Bai Sarea integratu du.

Kudeaketa eta gardentasuna hobetzen jarraitu dugu, prozedura guztiak Sektore Publikoko Kontratuen Lege berrira egokituta eta Gardentasunaren Ataria abian jarrita.

Urteko beste mugarri garrantzitsu bat Krea Bidasoa azokaren edizioa izan da. Ziurta dezakegu ezarritako helburuak bete zituela. 350 pertsona inguru bertaratu ziren, eskualdeko enpresen, pertsona ekintzaileen, erakunde publiko eta pribatuen, unibertsitatearen eta prestakuntza-zentroen artean.

Aurten, formatuaren berritasunagatik, “memoria industrial eta arriskuaren metodologia” erakusketaren antolaketa nabarmenduko dugu. Erakusketaren helburua izan zen balioa ematea familia-belaunaldi batzuen ibilbideari, ahaleginari, berrikuntzari eta sormenari. Familia horiek, 50 urtetik gorako ibilbidea izanik, gure testuinguruko industria-ondarea handitu dute, eta 14 enpresak parte hartu dute erakusketan.

Era berean, aurrez aurreko 2 enplegu-asteak programatu dira: 50 enpresak parte hartu dute lehen edizioan, eta 42 enpresak bigarrenetan. Azken horiek 839 lanpostu eskatu dituzte, 326 enplegu-eskaintzaren bidez.

Enpleguaren alorrean, lanarekin lotutako erakunde eta entitateekiko kolaborazioa indartu dugu, bai eta enpresa-ehunarekin dugun harremana ere, funtsezkoa baita Bidasoaldeko herritarren enplegagarritasuna hobetzen jarraitzeko. Ildo horretan, aipagarria da duela bi urte abiarazitako laneratzeko baliabideen sarea, kolektibo zaurgarriak laneratzeko proiektu bat abiarazi baitu eskualdeko hirugarren sektoreko erakundeekin elkarlanean, GFaren Elkar-Ekin proiektuaren bidez.

Berrikuntza eta enpresen lankidetzaren sustatzea da sozietatearen jardueraren beste zutarrietako bat, eskualdeko enpresen lehiakortasuna hobetzeko helburuz.

Era berean, industria-enpresen eraldaketa digitalari laguntzeko programak aurrera jarraitzen du, Gipuzkoako Foru Aldundiarekin dugun hitzarmenaren bidez, eta, era berean, enpresei laguntzen jarraitzen dugu berrikuntza-prozesuetan, SPRIk eta Innobasquek bultzatutako Hazinnova programaren bidez ("berrikuntzarako sarbidea"). Hazinnova eragile gisa parte hartzen dugu eskualdean. Ekonomia zirkularreko lan-ildoari dagokionez, 7 enpresarekin batera jarraitu da karbono-aztarna kalkulatzeko eta murrizteko planari buruzko programarekin.

Bidasoko Hiri Behategia oinarritzeko tresna da oraindik ere gure analisi sozioekonomikoa egiteko, eta informazio-iturri baliagarria da Irun eta Hondarribirako, are gehiago aurten, lagungarri izan baitzaigu ehunaren egoera ezagutzeko.

Ekitaldi honetan agentziaren funtsezko ardatz bat sustatzen jarraitu dugu, ekintzailatza, hain zuzen ere. Enpresa berrien beharretatik oso gertu egon gara, enpresa berriak zentzurik zabalenean hartuta. Azken batean, beren beharrak zeintzuk diren entzun dugu eta, gure baliabideen arabera, erantzuna eman diegu, dela neurri zehatzak ezarrita, dela erakunde edo instituzio eskudunei horien berri emanda. Neurri zehatzen artean, aipatzekoa da ekintzaileentzako beken programa sendotu dela. Ekitaldi honetako beste ekimen garrantzitsu bat ekintzailatzari laguntzeko programa bateratua abian jartzea izan da, Bic Gipuzkoarekin batera, Bidasoa Gunea izenekoa. Aurreikusitako tailerrak eta ekintzak egin ditu.

Turismoaren eremuan, nabarmentzekoa da Helmuga Turistiko Adimenduna izateko bideari ekin zaiola, gure helmugaren eraldaketa digitala bultzatzea eta sustatzea helburu duen lan-ildoan sendotzeko. Turismoaren garapen jasangarria bultzatu nahi du, turisten gogobetetasuna bermatuz,

baina herritarren bizi-baldintzak kontuan hartuz eta hobetuz.

Helmuga Turistiko Adimendunaren proiektu hau gobernantzaren, berrikuntzaren, teknologiaren, iraunkortasunaren eta irisgarritasunaren kontzeptuetan oinarritutako garapen turistikoaren ereduaren aldeko apustua da, turismoaren oraina eta etorkizuna bermatzeko.

Sozietateak, Irungo eta Hondarribiko udalekin eta Gipuzkoako Foru Aldundiko Ingurumen eta Obra Hidraulikoen Departamentuarekin batera, jasangarritasun energetikoaren arloko eskualdeko plana eta ekintza garatzen jarraitu dugu. Horren ondorioz, Bidasoa eskualdeko Energia Plana eratu dugu. Plan horren helburu orokorrak bat datoz Europar Batasunean, Espainian eta EAEn ezarritako helburuekin, energia aurreztearen, eraginkortasunaren eta energia berritzagarrien arloan. Helburu horien xedea da trantsizio energetikoko prozesu bat sustatzea eta aktibatzea, eskualdean giltzarri diren sektoreetan jarduketak ezarrita.

2023ko gure jardueraren ildo nagusia izan da enpleguaren sorkuntzako edo enpresa-ekimen berrien sorrerako sektore berrietan jarduerak sustatzen eta egiten jarraitzea.

Sozietateak laguntza teknikoa ere eman die Irungo Udalarari eta Hondarribiko Udalarari Europako finantzaketa-proiektuen ingurua

Aurten ere, Bidasoa bizirik-ek eskualdeko udalen garapen-planak sustatzen, garatzen eta gauzatzen parte hartu du: Irun Ekintzan, Irungo Udalaren garapen ekonomikoaren eta enpleguaren aldeko ituna; eta Hondarribia Abian, Hondarribiko Udalaren garapen ekonomikoaren eta enpleguaren aldeko akordioa. Gainera, Bidasoa bizirik-ek, berriro ere, Bidasoa-Txingudi mugaz gaindiko partzuergoaren jarduerak koordinatu, sustatu eta gauzatu ditu.

01

Lehiakor- tasuna eta berrikuntza

01 LEHIAKORTASUNA ETA BERRIKUNTZA

Aurtengo honetan, segida eman diegu, enpresei lehiakortasunean hobetzeko eskaintzen diegun laguntza zerbitzuaren arloan, hausnarketa estrategikoari begira aintzat harturiko lanei, trantsizio bikoitzean, digitalean eta ekologikoan, eragina duten gaietan batez ere, eta gogoan hartu dugu, halaber, belaunaldien ordezkatzeari, epe labur eta ertaineko neurriak planifikatu ahal izateko. Era berean, enpresek aintzat harturiko jardueren inplementazioan lagungarri gerta litezkeen programa batzuk ere abiarazi ditugu, horra Enpresa Estrategia, Bidasoa Digitala, Karbonoaren Aztarnaren Kalkulua eta Hazinnova, Eskualdeko Hazinnova programaren eragile nagusiak garen aldetik.

Enpresen arteko lankidetzaren sustatzeko eta sareak sortzeko lan larriaren arloan, Eskualdeko 10 industria enpresaren arteko gogoeta gunea bultzatu dugu “Topaketak enpresan” programaren bitartez, enpresen produkzio eta kudeaketa praktikak onak produkzio gunean berean partekatuzeko.

Era berean, aurreko urteetan bezala, laguntza tekniko eskaini dugu, Hondarribia Abian ekimenaren eta Irungo merkataritza eraberritzeko planaren barrenean, merkataritza zeharkari eta bertako produktuen sektoreko profesionalen lehiakortasunean hobetzeko aukera emango dieten jardueren bitartez.

01.1.

Enpresei lehiakortasunean hobetzen laguntzeko programak

Programaren bitartez laguntzen diegu enpresei aukera berriak hautematen, eta inguruan etengabe azaltzen ari zaizkien aldatetegi aurre egiten lagunduko dieten proiektu berriak itxuratzen. Enpresa bakoitza bisitatu eta gogoeta estrategikoa bideratzen dugu ondoren, zuzendaritza taldearekin, lehenetsi beharreko jarduerak lerroak zehazteko. Jarduera plana prestatzen dugu, azkenik, lehenetsiriko lan larriak eta proiektuak, eta haien balizko finantzabideak, gogoan harturik, eta aldiro

berrikusten dugu ondoren, enpresarekin batean.

44 gogoeta estrategikoa berri, 41 jarduera plan eta 30 jarraipen bideratu ditugu aurten guztira.

01.2.

Plangintza Estrategikoa eta enpresa arloko berrikuntza

Negozio ereduaren gaineko gogoeta estrategikoa

- 7 enpresa

Lan honetan batera bideratu ditugu taldeko saioak eta banakako aholkularitza saioak, eta 2025eko zerumugan egokitu da enpresa bakoitza bere negozioaren gaineko gogoetari ekiterakoan, zeinek bere bide orria prestatu du ondoren, lehenetsiriko proiektuak gogoan harturik.

Hazinnova programa

“Berrikuntza ez teknologikorako sarrera atea”

SPRI eta Innobasquerekin batean: 23 proiekturen identifikazioa 18 enpresatan. Azkenean, 18 proiektu berritzaile bultzatu dituzte 14 enpresak.

Enpresa Ekintzailea programa:

- 10 enpresa

Enpresen barneko ekintzaitzaren zentzua lantzen du programa honek bereziki: zer egin, zergatik egin eta nola egin. Lau jardunalditan banatua da programa eta estrategiaren ikuspuntutik pertsonak, barneko ekintzaitza konpainiaren estrategian txertatzeko metodoak eta ingurumenak, bilaketarako koadranteak eta exekuzio ereduak definitzeko egin beharreko urratsak zehazten dira hartan.

01.3.

Enpresa ehunaren digitalizazioa

Bidasoa Digitala

- Eraldatze digitalerako laguntza industria enpresan:

Aurreko edizioetan eraberritze digitalerako plana bururatu zuten enpresetako 8rekin egin dugu lan, plana zertan den berrikusteko, eginiko aurrerapenak aztertzeko eta proiektu berriak hautemateko.

Aurtengoan, 12 enpresa berrik hartu dute parte eraberritze digitalerako planean.

Lan sakonagoa bideratu dugu 5 enpresako talde batean, eta epe laburrean ezar eta abiaraz litezkeen datifikazio proiektuak garatu dira haiekin.

Datuen kudeaketarako oinarrizko programa antolakuntzan

Datuen kudeaketarako prestakuntza programa antolatu dugu aurtengoan, antolakuntzan datuetatik balioa ateratzeko prozesu eta tresnen gaineko sentsibilizazioa bereziki lantzearen. MUko Business Data Analytics graduko irakasleen esku joan da programa, 35 ordu guztira, eta 7 enpresak hartu dute parte hartan.

Hitzarmena Gipuzkoako Ingeniari Elkargoarekin.

Acelera Pyme Rural Bulegoa. (20.000 biztanletik beherako udalerrriak). 3 saio antolatu dira eta 38 enpresak hartu dute parte:

- Eduki erakargarrien sorrera sare sozialetan
- KIT DIGITAL, programaren aurkezpena
- Inbentarioen hornikuntza eta kudeaketa

01.4.

Ekonomia zirkularra

“Deskarbonizazioa trantsizio ekologikorako” programa:

- 7 enpresa.

Programaren helburua da enpresak klima aldaketak dakartzan premietara egokitzea. Bururatu diren ekintza zehatzak izan dira, hain zuzen ere, karbonoaren arrastoaren kalkulua eta bideratu beharreko murrizpenak aintzat hartuko dituen hobekuntza planaren prestakuntza. Programan parte hartu duten 6 enpresak Trantsizio Ekologikorako Ministerioan erregistratu dute lan hau, eta egin duten kalkulua egiaztatzen dien zigilua jaso dute horrenbestez.

01.5.

Lankidetzaren sustapena eta sareen sorrera eskualdeko enpresa txiki eta ertainen artean

Topaketak enpresan

Programa honen helburua da Eskualdeko enpresen artean topaguneak sortzea, elkar ezagutu dezaten, elkarren arteko lankidetzara susta dadin, informazioa parteka dezaten eta interes amankomuneko gaien gaineko eztabaida zabal dadin, etorkizunean lehiakortasuna hobetzeko aukera emango duten jarduerak hautemateko.

Produktzio planta bertan eta 20 langiletik gora dituzten 10 industria enpresak hartu dute parte. Topaketa formatu honen arabera, bisita egiten da enpresa bateko planta batera eta praktika on baten berri ematen du aldiro enpresa harrera egileak. Bisita egiten da ondoren, topaketa egin den Eskualdeko aukera enograzonikoa eskaintzen duen establezimendu batera.

01 LEHIAKORTASUNA ETA BERRIKUNTZA

Bi topaketa egin dira, enpresa banatan, eta honako gai hauek landu dira haietan:

- Hornitzaileen kudeaketa eredu automatizatua. Konsigna baten ezarpena, finantzazioa eta inbentarioa hobetzeko.
- Adimen naturala enpresa arloan.
- Kanpoko merkatuen esplorazioa, Frantzia begi miran jarririk.



Jardunaldiak eta intereseko bisitak

- Industria enpresaren iraunkortasuna: arriskuak eta beharreko eraldaketak. Martxoaren 30ean.
- TKGUNEaren aurkezpen saioa enpresei, Irungo La Salle eta Bidasoa LHII ikastetxeen lanbide heziketarako zerbitzuen eskaintza zehazturik. Apirilaren 26an.
- Kenkari fiskalak berrikuntza teknologikorako eta I+G proiektuetarako. Azaroaren 16an.
- Jakin ezazu nola adimen artifizialak zure enpresa lehiakorrago bihurtzen duen. Abenduaren 15ean.
- Bisita MUBIL Center, mugikortasun adimendun eta jasangarriaren arloko jarduna, zientzia eta jakintza garatzeko gune fisikora. Bera dugu Mugikortasun Adimendun eta Jasangarrirako

Gunearen epizentroa, eta bertara biltzen dira arlo horretako eragile nagusiak. Irailaren 21ean.



Enpresa misioa Bordelera

- Bordeleko hiri eta enpresa garapen esperientzia ezagutzeko bisita.

Urriaren 17an eta 18an Bordelera jo zuen erakunde eta enpresen ordezkari talde batek, Bordeleko hiria eta azpiegitura ekonomikoa azkenaldi honetan eraldatu dituen garapenaren nondik norakoak bertatik ezagutzeko. Lan agendaren arabera, garapen ekonomikorako eta start-upen sorrerarako ekimenak bultzatu dituzten proiektu berritzaile batzuen zuzeneko berri izan zuten bertaratuek, eta 'OIN Bordeaux Euratlantique' proiektuaren Project Housera eginiko bisita izan zen, hain zuzen ere, lan agenda hartako mugarri nagusia, eraldatze proiektu nagusiaren sorburuak eta egungo egoera aurkeztu zirelako. Ondoren, burdinbide sareko trenbidetan barrena ibilbidea eginik ezagutu ahal izan ziren Bordeaux Euratlantique delako guneko lehendabiziko garapenak.

Enpresa azpikontratisten katalogoa

Enpresa azpikontratisten katalogoaren eguneratzea, Eskualdeko 41 enpresaren gaineko informazioa emanez. Enpresa azpikontratisten ezaugarriak eta zerbitzuak ezagutarazten eta sustatzen ditu tresna honek, gogoan harturik betiere haien azken helburua dela enpresen arteko merkatu harremanak bultzatzea, hala gure ingurune geografiko hurbilean nola nazioarteko merkatuetan.



01.6.

Merkatari xehekarien eta bertako produktuen sektoreko lehiakortasuna hobetzea. Hondarribia Abian ekimenaren barneko ekintzak

Merkatari xehekaria

- Merkataritzaren jarduera planaren koordinaketa eta jarraipena.
- Merkataritza suspertzeko ekintzak:
 - Erakusleihoen lehiaketa Inauterietan eta herriko jaietan. 15 merkataritza establezimenduk hartu dute parte.
 - SummerMarket - Udako Merkatua 2023, abuztuaren 12an eta 13an San Pedro kalean. 20 merkataritza establezimenduk hartu dute parte.
 - Eguberriko merkatua. Edizio honetan, hiriaren erdialdean finkatu da merkatua, Santa Maria Madalena plazan karpa bat ezarririk. Abenduaren 16an eta 17an egin zen merkatua, eta 18 merkatarik hartu zuten parte. Zabala izan zen merkatarien eta artisauen eskaintza.
 - Eguberriko tailerrak. Gabonetan, artisauen establezimenduen sustapenerako eta Udalaren aisia eskaintza zabaltzeko, tailerrak antolatu ziren, hala helduentzat nola haurrentzat. 10 tailer antolatu ziren guztira, hiriko artisauen egoitzetan beretan haietako gehienak.

01 LEHIAKORTASUNA ETA BERRIKUNTZA

- Prestakuntzarako ekintzak:
 - “Retail Euskal Eskola” programa: parte hartzaile 1
 - “Eus-Commerce” programa: 6 parte hartzaile
- Merkataritza ekipamenduaren hobekuntzako laguntza lerroen zabalkundea. Laguntza teknikoak. 23 espediente aurkeztu dira.
- Bono Denda ekimenaren zabalkundea eta sentsibilizazio kanpaina, denden artean. Laguntza teknikoak: 53 denda atxiki ziren.
- Informazio zerbitzua: 27 kontsultari harrera.

Bertako produktuen sektorea

- Bertako Produktuaren VII. Astea.

Gastronomiaren eta bertako produktuen arteko lotura indartzeko, Bertako Produktuaren Astearen zazpigarren edizioa egin zen apirilaren 17aren eta 22aren artean. 14 tailer antolatu ziren, hala helduentzat nola haurrentzat. Hondarribiko hamar establezimendutan gauzatu ziren jarduerak, bai eta Azokan berean ere, larunbatean, showcooking delakoarekin batean.

Udalerriko hiru ikastetxek hartu zuten parte ekimen honetan: bisita gidatua egin zuten Botika Agroaldean eta Azokan, eta Tren Berdea baliatu zuten garraiorako.



01.7.

Irungo Merkataritza biziberritzeko plana. Laguntza teknikoak

MARKET PLACE IRUN proiektua. Laguntza teknikoak

Irungo Market plataforma garatzeko eta iraunarazteko eta bizikleta bidezko banaketa jasangarrirako sistema sustatzeko kontratuen jarraipena.

Eguberriko kanpaina

Merkataritza suspertzeko ekintzak.
Laguntza teknikoak.

01.8.

KREA Bidasoa, Ekintzailtza, Sormena eta Berrikuntzarako Topaketa. Martxoaren 30ean izan zen, Ficoban

Aurten, formatua berria zela eta, bereziki azpimarratu beharra dago “Industria memoria eta arriskuaren metodologia” erakusketa, enpresek eta Irungo udal artxiboak ekarritako materiala – argazkiak, aurreneko prototipoak, administrazio dokumentuak– aurkeztu zuena. Erakusketaren helburua zen 50 urtetik gorako bidea eginez gure inguruko industria ondarea sustatu eta emendatu zuten familia belaunaldi batzuen ibilbidea, ahalegina, berrikuntza eta sormena balioan ezartzea.

14 enpresak hartu zuten parte Helga Massetani Piemonte komisario izan zuen erakusketa honetan.

01.9.

Laburpenerako kopuruak

Industria, industriarekin loturiko zerbitzuak, garraioa eta merkataritza handizkaria

- 56 enpresa lehiakortasunean hobetzen laguntzeko programan.
- 57 enpresa informazio eta kontsulta zerbitzuan.
- 83 enpresak hartu dute parte lehiakortasunean hobetzeko ekintzen inplementazio programetan.
- 189 enpresak hartu dute parte prestakuntza saioetan eta/edo lankidetzarako dinamiketan.

Merkataritza xehekarria

- 27 enpresa informazio eta kontsulta zerbitzuan.
- 156 enpresak hartu dute parte prestakuntza saioetan eta/edo lankidetzarako dinamiketan.

02

Ekintzaitza eta jarduera berria

02 EKINTZAILETZA ETA JARDUERA BERRIA

Ekintzailtza eta Jarduera Berrietarako Departamentuaren egitekoa da ekintzaile kultura bultzatzea eta gure eskualdean sortzen diren enpresa ekimenak laguntzea. Haren helburu nagusia da, horrenbestez, bertako negozioen sorrera eta sendotzea sustatzea, sen ekintzailea pizgarritzea eta ahaltzea, ekimen berritzaileak bultzatzea eta gure eskualdean hazkunde ekonomikoa eta soziala bizkortzea. Hori guztia ongi gogoan edukirik berezko ekosistema ekintzaile bizi, inklusibo eta jasangarria sustatu ahal izateko beste erronka batzuei aurre egin behar zaiela, horra gizartearen premiak, digitalizazioa eta ingurumenaren babesa.

Arreta hurbila eta pertsonagan oinarritua da gurea. Zerbitzu oso honen arabera, arreta eta informazioa eskaintzen ditugu negozio bati ekiteko unean, aholkuak eta laguntza ideia balioztatzeko momentuan, prestakuntza, enpresa sortu ahal izateko tramiteetarako sarbidea, negozio ereduen garapenerako aukerak, enpresa estrategia, finantzabideen gaineko orientabideak, azpiegituretarako sarbidea enpresa jarduerako lehen urteetan eta negozioa sendotzeko laguntza.

Sentsibilizazio, prestakuntza, aholkularitza eta laguntzarako programak garatzen ditugu proiektu bakoitzaren garapen etapa guztietan, hasierako ideiatik enpresa abiarazi eta sendotu den arte. Eta ekosistemako egile eta eragile sare zabal batekin egiten dugu lan. Xede horri begira, urteak daramatzagu lankidetzat bultzatzen, inklusioa, berrikuntza eta gizartean inpaktu jasangarria izango duten ekimenen arteko lankidetzat erraztuko dituzten sostenguak eta baliabideak are eta sendoagoak izan daitezten. Eta 2023an urrats bat egin dugu bide horretan aurrera Bidasoa Gunea ekintzailtza espazioa abiarazi dugun aldetik: apustu garbia egin dugu esperientzia pilotu gisa sortu den produktu berri honen alde, eta haren bidez indartu dugu BIC Gipuzkoarekiko elkarlana, eskualdean sortu eta bertan gorpuztu nahi duten proiektu berritzaileak sustatzen segitzeko.

Laburbildurik, gure helburu nagusia da negozioen sorrera eta sendotzearen arloan laguntza eta zerbitzuak eskaintzea, berrikuntza sustatuz eta pertsonen eta eskualdearen etorkizun hobea

opatu ahal izango dien inpaktu sozial positiboa eta jasangarria sorraraziz. Xede horri begira, ekintzailtzaaren ekosistemako beste erakunde eta eragile nagusiekiko lankidetzat esparruan kokatzen dugu geure egitekoa.

Hona, bada, ondoko lerroetan, 2023. urtean bideratu eta burura eraman genituen jarduerak.

02.1.**Kultura ekintzailearen aldeko ekimenak**

Jarrera ekintzailea adoreturik, haren garrantziaz jabeturik eta jabeazirik, gero eta enpresa gehiago sortzea lortzen dugu, baina bada besterik, horrela jokaturik, besterentzat nahiz geure buruarentzat lanean ari garela, garatu ere egiten baititugu balio erantsia sorrarazteko gaitasunak eta trebeziak. Eta hain zuzen ere, balio erantsia sorrarazteko gaitasun hori eta bera da pertsona ekintzailearen ezaugarri nagusia.

Gogo Ekintzailea Sustatzeko Programa Lanbide Heziketan

Eskualdeko lanbide heziketaren arloko ikasleen artean bokazio ekintzaileak bideratu nahirik, ekintza berezi batzuk bururatu dira LHko Ikastetxeetan Gogo Ekintzailea Sustatzeko Programaren bitartez, ikasleen artean gaitasun ekintzaileak sustatzeko. Gaitasun horien arteko batzuk ditugu, adibidez, erabakiak hartzea, ideien aurkezpena ahoz eta idatziz, arriskuen onarpena eta talde lana.

Helburu horri begira, marko bizi eta aldi berean egonkor batean segitu dugu lanean, sinergiak errazteko eta ekintzailtza eskualdeko lanbide hezkuntzako ikastetxe guztietan bultzatzeko. Hainbat ekintza bideratu dira, horrenbestez, Negozio Ereduen Diseinuaren, Pertsona ekintzailearen egunaren, Ekintzailtza Berriaren araberako Proiektuen eta Enpresa Bideragarriak Sortzeko Praktika Onen inguruan. Programa honetan, 406 ikasle hartu dute parte 2023an.

Tailer teknologikoen programak adin goiztiarretan GAZTETEK eta TECH IRUN:

Lehen haurtzarotik piztu nahi ditugu jarrera ekintzaileak tailer hauen bitartez, eta eskola oporrak baliatzen ditugu horretarako: Aste Santua, Uda eta Eguberriak.

Helburu nagusia da aisia denbora hori izaera teknologikoko miniproiektuetan islatuko diren ideiak sortzen ematea. Bikoitza da asmoa: jarrera ekintzaileak akuilatzea eta adoretzea, alde batetik, eta STEAM gaitasunak eta trebeziak indartzea, bestetik. Aldi berean, ikasleek ingurumena zaindu beharreko zerbait dela kontuan hartzea da, halaber, saio hauen helburua.

20 tailer gauzatu dira guztira eta 243 neskek eta mutikok hartu dute haietan parte.

02.2.

Enpresa ekimen berriei laguntzea eta enpresak sortzea

Arlo honetan eskaintzen diren zerbitzuen helburua da ekintzailetza inklusiboa sustatzea eta enpresen sorrera, hazkunde eta sendotze prozesuetan kritikotzat harturiko alderdiak bereziki lantzea eta indartzea.

Lagundu egiten diegu pertsona ekintzailei negozio arrakastatsu bat muntatzeak dakarrenaz une orotan jabe daitezen, eta enpresaren arlo desberdinen gaineko informazioa eta laguntza teknikoa eskaintzeaz gainera (kudeaketa, fiskalitatea, finantzazioa, marketina, laguntzak, tramiteak, eta abar) haien ondoan egoten gara negozio planak lantzeko unean eta enpresa ekimenen bideragarritasunaren gainean aholkuak ezinbesteko direnean.

Arlo honetan, 1.323 kontsulta hartu dira 2023an eta zerbitzua eskaini zaie 404 pertsona ekintzailei;

enpresa hasi eta eratu berrien sustatzaileak ziren haietako 99. Era berean, 64 bideragarritasun planen prestakuntza lanetan hartu dugu parte.

Bidasoa Gunea, berritzaile izan litezkeen ekimenak sustatzeko programa

2023an sortu da Bidasoa Gunea BIC Gipuzkoarekin elkarlanean, proiektu berritzaile berriak sustatzeko eta etorkizunean ekimen mota hauek indartzeko. Berrikuntza eta Lehiakortasunerako Departamentuarekin batean eta BIC Gipuzkoarekin elkarlanean estu loturik, enpresa ideien eta proiektuen zabalkunde, sentsibilizazio, prestakuntza eta heltze programa oso bat itxuratu da lehendabiziko jarduera urtean. Hari esker, berritzaile izan litezkeen 7 ideia identifikatu ahal izan dira, eta euskarria eman zaie 9 proiekturi; haietako 3 BIC Gipuzkoak bultzaturiko Txekintek/ekintzaile programaren barrenean hartu izan dira aintzat.

Beka Programa Bidasoan ekiteko

Programa honen helburua da gogo ekintzailea sustatzea, negozioaren ideiaaren definizio prozesuan eta haren hasierako garapenean gizartean inpaktu jasangarria duten talentua, berrikuntza eta sormena bultzatuz. 2023an bi beka deialdi egin dira, eta 5 proiektu izan dira onuradunak: "Arrantza sareen bilketa eta birziklatzea", "Eskulan tailer jasangarriak", "Energia Kudeaketaren Zerbitzu Integrala", "3Dko QR-imaginen inplementazioa terrore nobeletan" eta "Adimen artifizialean oinarrituriko Web Plataforma, liburu pertsonalizatuaren sorrerari begira".

02 EKINTZAIETZA ETA JARDUERA BERRIA

Pertsona ekintzaileen aldeko laguntza programa APEI/APEA

APEI/APEA eta Lanbide arteko Lankidetzaren hitzarmenaren babespean garatu da programa hau berriro ere. Programa honetan aintzat hartzen dira negozio ideien aztertze prozesuan dauden pertsonak (APEI), alde batetik, eta enpresa berriak sortzeko eta abiarazteko prozesuan daudenak (APEA), bestetik.

- APEI programa: Negozio ideien azterketa prozesuan dauden pertsona ekintzaileei zuzendua da programa hau. 2023an bukatu da aurreko urteko deialdiari dagokiona, 11 parte hartzaile guztira, eta abiarazi egin da segidan 2024ko deialdiari dagokiona, 11 parte hartzaileekin.
- APEA programa: Enpresa berrien sortze eta abiarazte prozesuan dauden pertsona ekintzaileei zuzendua da programa hau. 2023an bukatu zen aurreko urteko deialdiari zegokiona, 6 parte hartzaile guztira, eta abiarazi egin zen segidan 2024ko deialdiari zegokiona, 7 parte hartzaileekin.

TXEKIN-EMEKIN, negozio ideia berriak garatzen laguntzeko programa

2023an, 10 proiektuari egin zaie harrera programa honetan. Haren bitartez, beharreko aholku guztiak helarazten zaizkie pertsona ekintzaileei, dituzten proiektuak egoki definitzeko eta zehazteko, eta lagundu egiten zaie, era berean, enpresa sortzeko asmoa gauzatzen eta egia bihurtzen. Enpresa bizitza aztertzen da programa honen garapenean, haren aldagai esanguratsuenak, haren arriskuak eta abar aintzat harturik, eta BIDERAGARRITASUN PLAN/NEGOZIO egituratu batean zehazten da. Errazagoa izango da, horrenbestez, enpresa abiarazteko finantzabideen bilaketa.

Laguntzak Finantzaziorako Sarbidean

Aintzat hartu diren neurrien arteko beste bat da finantzaziorako sarbidea erraztea, lehentasunezko kreditu lerro batzuen bitartez edo pertsona ekintzaileentzako eta enpresa txikientzako laguntza eta subentzio berezietara programen bitartez. Halatan, bereziki azpimarratu beharra dago 2023an 181 proiektu lagundu zirela enpresen abiarazteko finantzabideetarako sarbidea errazten duten neurriez. Haien artean, bereziki aipa dezagun 87k Lanbideren laguntzak jaso zituztela, 35ek SEPEren laguntzak kapitalizazioari begira, 48k Irungo Udalaren ekintzailetzarako laguntza lerroetara jo zutela (E-gaztea, E-berritzailea, K-biziak alokairua, K-biziak eraberritzea eta ideia berritzaileen aldeko Irun ekintzan sariak) eta 11k Hondarribiko Udalarenetara.

02.3.

Ekintzailetza gune eta azpiegituren kudeaketa

Baditugu coworking guneak eta enpresa guneak, proiektuen inkubazio eta suspertzeari begira. Anezka dira gune hauek ekimen berri bat abiarazi nahi duten pertsonentzat, beren negozio edo enpresa ideia garatzeko gune edo espaziorik ez badute. Gune hauetan dohaineko lantokia eskaintzen zaie, epe mugatu batez, pertsona ekintzaileei eta enpresa berriei, eta eskaini ere egiten zaizkie negozioaren abiarazte prozesuko lehen etapa horietan horren beharrezkoak diren aholkularitza eta beste zerbitzu batzuk. Halatan, ekintzailetzaren aurreneko faseak bultzatu nahi ditugu, enpresa berria merkatuan sendotu arte, arrakastarako aukera gehiago izan ditzan eta enpresa jarduera are eta sendoagoa eta iraunkorragoa izan dadin.

2023an, bereziki aipatu beharra dago **Bidasoa Gunea** ekintzailetza espazioa abiarazi izana, dagoeneko aipatua den bezala. Abangoardiako ekintzaile ekosistema da hau, inolaz ere, ideia berritzaileak sortzeko eta enpresa proiektuak garatzeko diseinatua. Ideia berriak eta negozio aukera berritzaileak identifikatzeko sortu da gune hau, bai eta ezagutzak, ideiak eta esperientziak partekatzeko eta lankidetzaz horietatik onurak ateratzeko ere. 2023ko bukaeran onartu zen gune horretako lehen ostatatzea, proiektu berritzaile bat.

Bestalde, 2023an, 16 enpresa berri, zuzeneko 20 enplegu guztira, ostatatu ziren Puntala Bizirik, Zaisa, Ficoba eta Arretxe-Ugalde enpresa guneetan.

Bereziki aipatu beharra dago, bestalde, erabilgarri dauden guneen gaineko informazio geolokalizatua eskaintzen duela Bidasoa Bizirik webak, eskualdea kokalekutzat hartu duten enpresei begira. 2023ko bukaeran hasi zen gune horiek eguneratze prozesua.

02.4.

Trebakuntza eta prestakuntza

Bidasoa Guneako prestakuntza programak

Ekimen berritzaileen profilerak egokitu eta bi prestakuntza programa espezializatu prestatu ziren gure Departamentuan, premia jakin batzuen alderdi nagusiei egokiago ekin ahal izateko. Horra, alde batetik, Digiemprende ikastaroa, autoezagutza eta ekintzaileen gaitasunetan trebatzea helburua, 6 pertsona ekintzaile jaso dituena, eta, beste aldetik, Ideiatik negoziara ikastaroa, ekintzaileak enpresen sorrera eta kudeaketa prozesuetan gaitu eta trebatu nahi dituena, 7 pertsona jaso dituena.

Asteazkenean ekin programa

Prestakuntzarako baliabideen artetik, digitalizazioa izan da antolaturiko jarduera askotako protagonista. Helburu nagusia izan da marketin digitalerako tresnak ezagutaraztea, enpresa parte hartzaileek beren marketin planak modu eraginkorrean landu ahal izan ditzaten eta, horrenbestez, salmentak emendatu eta erabili beharreko teknologiak eta plataformak ezagutu ahal izan ditzaten. 119 lagunek hartu dute parte guztira Asteazkenean ekin programak antolaturiko 11 tailerretan.



02 EKINTZAILETZA ETA JARDUERA BERRIA

Eguerdi On topaketak sendotze programa

Enpresa komunitate jasangarri bat kohesionatzea du helburu. Elkarretara bildu, konektatu, partekatu... eta sortuko diren estekak eta loturak baliabide baliotsuak izango dira ondoren. Horretarako, banan banako nahiz taldekako coaching saioen bitartez lantzen dira harremanak, enpresa proiektuaren arrakastari begira. Sendotze bidean diren 23 enpresak hartu dute parte programa honetan.

Inplantalariak, aholkularitza teknologikorako programa

SPRIrekiko lankidetzan garatzen dugu programa hau. Haren helburua da teknologiak ezartzea eta erabiltzea, enpresak are eta lehiakorragoak izan daitezen. Urtean barrena hamaika talde saio egin dira eta 80 enpresa berrik hartu dute haietan parte. Neurriko aholkularitza teknologikoa eskaini zaie 39 enpresa berri.

02.5.

Ekimen Sortzailea

Ekintzailletza eta Jarduera Berria Departamentuaren jokalerroetako bat da sormenaren eta sortzaileen sektorea bultzatzea. Jarduera horien artetik bereziki nabarmendu beharra dago KREA BIDASOA jardunaldia, 2023ko martxoaren 23an egin dena. Berriro ere bilakatu da jardunaldi hau eskualdeko ekintzailletza, berrikuntza eta sormenaren topagune nagusia, eta 314 parte hartzaile bildu dira hartara. Departamentuak antolatu dituen ekitaldien artetik, aipagarriak dira **Star Ekintzaile** hacakhatona, eskualdeko lanbide heziketako lau ikastetxeetako 132 ikasle bildu dituen, eta **First Pitch** ekitaldi berezia, bertan aurkeztu baitziren, modu berritzailean aurkeztu, eskualdeko ekintzaileen sei proiektu berri.

Bestalde, networking topagune bat egin da 2023ko maiatzean, Garapen, Euskadiko Garapen Agentzien

Elkartearen KSI lan taldearen esparruan antolatua. Topaketa hauen helburua da sektore honekin loturiko ekimenak balioan ezartzea eta parte hartu duten lurralde guztietako proiektuen arteko elkarlana eta lankidetzara erraztea.

02.6.

Ekintzaile jardueraren zabalkundea eta balioztatzea

Pertsona ekintzaileen eta enpresa berrien artean informazio interesgarria zabaltzeko asmotan landu, prestatu eta igorri dira Ideiak bizirik izeneko 210 buletin edo aldizkari. Era berean, beste ekintza batzuk ere egin dira ekintzaileen lana zabaltzeko eta balioztatzeko. Xede horri begira eman dira argitara emakume ekintzaileen 6 bideo, 10 ohar eta hainbat prentsaurreko, eta ugari izan dira, halaber, sare sozialetan eta webean urtean zehar eginiko agerraldiak.

02.7.

Elkarlana ekintzailletza sistemarekin

Helburuetara iristen eta ahalik eta emaitza hoberen eta eraginkorrenak lortzen lagunduko diguten baliabideak eta gaitasunak bildu ahal izateko, sareak ehuntzea eta hedatzea arras garrantzitsua dela jakinik, aurreko urteetan bezala 2023an ere segitu dugu lanean ekintzailletza ekosistemako beste egile eta eragile publiko eta pribatuekiko loturak sendotzeko ahaleginean.



03

Formakuntza eta enplegua

03 FORMAKUNTZA ETA ENPLEGUA

Hiru ardatz estrategikotara bildu dira nagusiki Prestakuntza eta Enplegua Departamentuak bultzaturiko jarduerak. Hona hemen haien egitekoak: tokiko sareak entitate eta erakunde lankideen laguntzaz indartzea, enplegu, prestakuntza eta orientazioari begira; pertsonak beren erabaki pertsonalak eta profesionalak hartzeko prozesuetan egokiera hobean ezarriko dituzten jarduera berritzaileak sustatzea, eta, gizarteratze eta laneratze prozesuetan, pertsonen laguntzea, aholkuak ematea eta orientatzea.

Bidasoa Bizirik enplegu sistema publikoko parte ere bada, LANBIDE Euskal Enplegu Zerbitzuaren erakunde lankidea den aldetik, eta horrexegatik, hain zuzen ere, garatzen ditugun jarduera guztietan ahalegintzen gara pertsona guztiei lanerako sarbidea errazten eta gure poxia ezartzen dugu lan merkatua ahalik eta bidezkoena izan dadin.

Bereziki azpimarratu beharra dago 2023. urtean arriskuan dauden giza taldeetako pertsonen prestakuntza eta enplegurako proiektu pilotu bat bukatu dela eta beste bi proiektu berritzaile abiarazi eta garatze bidean ezarri direla. Berritzaileak dira beren metodologiagatik eta/edo beren diseinuagatik. Hona hemen:

- Tokiko proiektu pilotu bat, "Irun-Empleo Silver Economy" deitua, luzaroan lanik gabe dauden eta BGD eta/edo DBE kobratzen ari diren pertsonen laneratzeari eta gizarteratzeari begira. Zaintzetako profesionalak eta, bereziki, erakundeetan besteren mende bizi diren pertsonen osasun eta gizarte arretan espezializaturiko laguntzaile teknikoak kualifikatu ditu proiektu horrek. 13 pertsonak hartu dute parte projektuan, eta Profesionaltasun Egiaztagiria lortu dute, eskualdeko enpresetan 10 hilabetean, alternantziako formazio kontratu batez, modu esanguratsuan jardun ondoan. Proiektua bukatu eta gero, kontratu berria lortu dute zazpi pertsonak.
- Prestakuntza eta enplegurako proiektu bat, "Hiriaren birsorkuntzarako agenteak" deitua, luzaroan lanik gabe dauden eta/edo gizarte laguntzak jasotzen ari diren pertsonen laneratzeari eta gizarteratzeari begira.

Metodologia aurrekoaren antzekoa da, eta prestakuntza ibilbidean 664 ordu hartzen ditu prestakuntza ofizial egiaztatuak eta 10 hilabetez luzatzen da alternantziako kontratua. Hamar lagunek hartu dute parte projektuan, 7 emakumek eta 3 gizonek.

- Eta elkarlanerako proiektu bat, BidaLAN izeneko eta Enplegu eta Prestakuntzaren arloetako erreferentziazko erakundeen eskualdeko sareak diseinatua. Gipuzkoako Foru Aldundiak finantzatu du "Enplegua eta gizarteratze-laneratzea sustatzeko Elkar-EKIN lanean" programaren bitartez, eta horrenbestez garatu ahal izan ditugu hiru prestakuntza ibilbide kualifikagarri eta enplegua sustatzeko bi programa. Egokiera hobean ezarri ahal izan dira, horrenbestez, lanaren esparruko giza talde zaurgarrienetako batzuk. Pertsonak prestatzeko, lanerako sarbidea errazteko eta lan merkatuko bitartekotza ziurtatzeko proiektu integrala da hau eta eskualdeko beste entitate pribatu batzuekin garatzen dugu.

03.1.**Etorkizuneko lanbideen Espazioaren jarduerak**

2023. urtean, **3.783** laguntza **zerbitzu** bideratu dira Etorkizuneko Lanbideen Espazioan, enplegu eta prestakuntza ibilbideetan ari diren pertsonen beharrei begira.

Banan banako interbentzioak izan dira batzuk eta talde saioak beste batzuk, eta pertsonen arreta eta intereseko arloak hartu dira bereziki erreferentziazat: "Bilatu zure prestakuntza", "Aurkitu zure lana" eta "Bideratu zure etorkizuna". Buruz buruko aholkularitzaren arloan, **293 pertsonari** eskaini dizkiegu orientazio, informazio eta laguntza zerbitzuak.

Talde saioetan, 22 tailer antolatu ditugu eta 220 lagunek hartu dute parte haietan guztira, emakumeak izan dira % 62 eta gizonak % 38.

Enpleguaren bilaketa, Informatika eta Lankidetzarekin lotuak dira tailerretan landuriko edukiak. Gunea berezi bihurtzen duten lerroetako bat ditugu, hain zuzen ere, Lankidetzarako tailerrak, eta haren bitartez egiten dugu lan komunitateko entitate eta gizarte eragileekin.

Baliabide oso erabilia da Autoerabilera arloa, 9 ordenagailu, Interneterako sarrera, eskaner, inprimagailu eta lanerako sarbidea edo lana hobetzeko aukera eskaintzen duten beste hainbat baliabidez hornituriko gunea. 152 pertsonak baliatu dute arloa eta 911 zerbitzu eta 1.163 erabilera ordu erregistratu dira.

03.2.

Orientazioa eta enplegu gunea

Lanbide, Euskal Enplegu Zerbitzuaren bitartez finantzatzen dira bi zerbitzuak eta deialdi publikoen bitartez esleitzen dira. Zentzu honetan, trantsizio urtea izan da 2023 deialdiei dagokienez. Maiatzean zabalduko da Enplegu Gunearen 2023-2025erako deialdi berria eta urrian bukatuko da Orientazioaren 2021-2023rako deialdia.

Enplegurako Orientazio zerbitzuan, banan-banako prozesuak bideratu ditugu 453 pertsonekin, emakumeak ziren % 55,4 eta gizonak % 44,6. Urtearen bukaeran, % 44,9koa izan da laneratzeen portzentajea.

Enplegu Gunearen zerbitzuak bost hilabeteko etenaldia bizi izan du bi deialdien artean; halarik ere, bere baliabidez eutsi ahal izan dio zerbitzuak. Jardunean izan den zazpi hiletan, 116 pertsona hartu izan dira, % 56,9 gizonak eta % 43,1 emakumeak. 557 aldiz erabili dute baliabidea, 618 ordutan.

Oro har, Gunearen edo Lanbideren Orientazio zerbitzuaren bidez, banan-banako ibilbideetan parte hartu duten pertsona horietatik guztietatik, emakumeak izan dira % 52,8 eta gizonak % 47,2. Adinei dagokienez, % 49 dira 45 urtetik gorakoak, % 31 30 eta 45 urte bitartekoak, eta % 20 30 urtetik beherakoak

03.3.

Formakuntza

Oro har, 45 prestakuntza ekintza bideratu dira 2023. urtean eta 473 pertsona matrikulatu dira haietan guztira, % 59,6 emakumeak eta % 40,4 gizonak.

Enplegurako Prestakuntzan, 31 ikastaro egin dira, 4.603 ordu aurrez aurreko saioretan eta 175 ordu bestelakoetan. 410 lagunek hartu dute parte, emakumeak ziren haien % 57,8 eta gizonak % 42,2. Honako arlo hauek bildu dira prestakuntza edukiak: Ostalaritza, Jatetxeen eta Ostatatzeen arloetako prestakuntza, Administrazioa, Jasangarritasuna, Emakumeen eta gizonen arteko Egiazko Berdintasuna, Lan Arriskuen Prebentzioa Eraikuntzan, Kargen eta Jasogailuen Manipulazioa, IT Txartelak eta Egiaztagirak, Gaitasun digitalak, Frantsesa eta Elikagaien eta Alergenoen Manipulazioa. LANBIDE, Gipuzkoako Foru Aldundi eta Irungo Udalaren baliabideen bitartez finantzatu dira prestakuntza hauek.

Ikaskuntza Iraunkorraren esparruan, 3 Informatika ikastaro kudeatu eta tutorizatu ditugu online, 80 ordu guztira aurrez aurrekoa izan ez den prestakuntzan. 17 lagunek hartu dute parte, emakumeak % 88 eta gizonak % 12.

Era berean, aulaNET – Bidasoa Bizirik online prestakuntzarako plataformak 11 ikastaro eskaini ditu autoprestakuntzarako (Hizkuntzak, Ofimatika eta Lanbideak). 50 matrikula izan dira guztira, % 64 emakumeak eta % 36 gizonak.



03 FORMAKUNTZA ETA ENPLEGUA

03.4.

Lan bitartekotza eta praktikak

Euskal Enplegu Zerbitzuak baimenduriko Laneratze Agentzia garen aldetik, 124 lan eskaintza kudeatu ditugu guztira 2023. urtean, 171 lanposturen galdeari erantzuteko, eta 3.886 hautagaitza aztertu ditugu enpresentzat. **54 kontratazio** egin dira azkenean guztira.

Bereziki azpimarratu beharra dago Enpleguaren Astearen beste bi edizio egin ditugula, maiatzean eta azaroan, hain zuzen ere. Lehendabiziko edizioan 50 enpresak hartu dute parte, eta 42k bigarrean. 839 lanpostu eskatu dira 326 enplegu eskaintzaren bitartez. Maiatzeko edizioan izan zuten parte hartzearen emaitzak jakinarazi dituzten enpresek adierazi dutenez, **35 kontratazio** egin dira parte hartu duten pertsonen artean.

Irun eta Hondarribiko Udalen Enplegua Sustatzeko programaren kudeaketa ere bideratu dugu; 37 hautaketa prozesu bururatu ditugu guztira, eta haien ondoren **53 pertsona** kontratatu dira bi udalerrietan, % 58,5 emakumeak eta % 41,5 gizonak.

Lan edo enpleguarekin zuzenean loturik ez diren prestakuntza praktikei dagokienez, 47 hitzarmen kudeatu dira eskualdeko enprekin eta haietan parte hartu dutenen % 38,3 izan dira emakumeak eta % 61,7 gizonak.





04

Turismoa

04 TURISMOA

2023. urtean bereziki azpimarratu beharrak dira Jasangarritasunerako Planaren arabeko jardueren eta, THA, Turismo Helmuga Adimendunaren arloan, helmugaren lehiakortasuna hobetzeko egitekoen koordinazio eta exekuzio lanak. Gogoan har bedi THArako programa Berreskuratze, Eraldatze eta Erresilientziarako Planaren arabekoa dela eta Europako Batasunak finantzatua dela, Irungo Udala dela bide, NEXT GENERATION EU funtsen bitartez.

Landu egin dira, era berean, Turismo Adimendunerako Plan Zuzentzailea eta Marketing Digitalerako Plana, turismo baliabideen eskaintza eta kudeaketa beharkizun berrietara egokitzeko. Helburua da eskualdearen kokalekua hobetzea eta, askotariko eskaintza eginik, garapen jasangarria eta irisgarria bermatuko duen turismo berritzailea sustatzea.

Basquetourrekin batera, THArako metodologia egokitzeko lana bururatu dugu eskualdean, eta haren buruan egokitu zaie Irun eta Hondarribiko Udalei Atxikiriko Turismo Helmuga bereizgarria. Honenbestez bilakatu dira Irun eta Hondarribiko Udalak turismoaren garapenaren abangoardian diren Turismo Helmuga Adimendunen sareko partaide.

Aldi berean, segida eman zaio erakunde publikoen eta pribatuen arteko lankidetzari, turismo produktuaren garapenari begira, eta egiteko honetan gogoan hartu dira bereziki turismo lehiakortasuna, informazioa, garapena, sustapena eta lankidetzaren sareak indartzeko jarduerak, ondoko lerroetan zehaztuko direnak.

**04.1.****Erakunde publiko eta pribatuen arteko jarduerak. Produktuen garapena**

Honako lan hauek bururatu dira, sektore mahaien bitartez:

- Arloko enpresei sektoreko laguntzen gainean emaniko informazioa eta aholkularitza, eta haien jardueren jarraipena.
- Arloko azpisailtako mahaien eta Produktuaren Klubaren antolakuntza eta koordinazioa.
- Itsasertz eta Ibai Bidaien Proiektua (IIB SAREA), Experiencias turísticas España programak finantzatua. 10 autonomia erkidegotako 16 erakundek parte hartzen dute hartan, produktu klub izaerako elkarte estrategikoa osatuz. Haien helburua da itsasertz eta ibai bidaien arloan lehen erreferentzia bihurtzea, Getxo eta Basquetourrekin batean, bazkide kolaboratzaile gisa ari da Bidasoa Bizirik sare horretan.
- Irungo Udalarekin batean, Industria Turismo Ibilbidea, Burdinaren Ibilbidea eta Irun Berdea ekimenak bultzatu ditugu. Atlantikoko Hiri Erromatarren Sarea bultzatu dugu. Bisita gidatuen dinamizazioa Herriko Etxean eta Irunen barrena. Eguberriko kanpainaren sostengua, komunikazio euskarrien bitartez eta iragarkiak zinema eta autobusetara eramanez. Koordinazioa, Irun Hiri Erromatarra proiektuaren arabera aintzat harturiko jarduerak burura eramateko.
- Hondarribiko Udalarekin batean, Erdi Aroko Hirien Sarea bultzatu dugu, hartan parte hartuz. Nautikaren arloko Komunikazio Plana abiarazi dugu Hondarribia Abian programaren bitartez. Komunikazio kanpaina bat bururatu dugu sare sozialetan. Nautikaren arloko udako eskaintzaren berri ematen duen informazio orria eguneratu da, kartelak, bideoak eta abar berrituz. Gainera, eguneratu ere egin dira Kirol

portuko informazio panelak, EKPko instalazioetan eginiko berrikuntzen berri emanez. Komunikazio kanpaina bururatu dugu sare sozialetan, eta lehiaketa bat Instagramen, enpresa bakoitzak saritzat jarduera bat eskainita.

04.2.

Turismo lehiakortasunerako jarduerak

Hona hemen zertan diren turismo lehiakortasunerako jarduerak:

- Kode Etikoa kalitate programa, Eskualdeko 19 establezimenduren eta Bidasoa Bizirik turismo departamentuaren partaidetzaz. Jasangarritasun eta erantzukizunarekiko konpromisoa azaldu dute atxikiriko enpresek, eta kode horren atxikimendu eta inplantaziorako epe guztiak bete dituzte.
- ISO kalitate egiaztagiriak.
- THA gidaliburuen aintzatespena egiaztagiriari begira.
- Laguntza eta subentzioen gaineko zerbitzua. Udalek, Eusko Jaurlaritzak eta Aldundiak ematen dituzten laguntzen eta subentzioen gaineko informazioa bildu eta zabaldu da sektorean. 150 ostalaritza enpresari, aholkuak eta jarraipena. Eusko Jaurlaritza, Gipuzkoako Foru Aldundi eta Irun eta Hondarribiko Udalen laguntzak helarazi zaizkio Lojamendu eta nautika zerbitzuetako sektoreari: 50 enpresa eta 5 ekintza.
- Basquetour eta HUB Gipuzkoaren prestakuntza ikastaro baliagarrien gaineko informazioa bidali dugu. Sare sozialen gaineko ikastaroak bururatu dira, sektoreari begira, Bidasoa Bizirik agentziaren instalazioetan. 7 jardunaldi izan dira guztira, eta 15 enpresak hartu dute parte.



04.3.

Informazio, garapen eta sustapen jarduerak

Hondarribia-Irun weba eguneratu dugu eta SEO eta irisgarritasuna hobetzeko lanak bururatu.

Marketin Planaren arabera produktu lerroak landu dira Basquetourrekin: Gastronomía, Nautika eta Euskal Kostaldea, Familia turismoa, Industria Turismoa eta Kode Etikoa.

Gastronomía

Departamentuak jarduera plan bat landu du 2023ko produktu enogastronomikoari begira, Basquetourrekin eginiko lanaren ildotik. 30 establezimenduk hartu dute parte etapa berri honetan: 16k Hondarribian eta 14k Irunen. Hondarribiko Erdi Aroko Pintxoaren eskaintzaren dinamizazio gastronomikoa bideratu dugu, Erdi Aroko Azokaren garaian, eta Hondarribiko 12 establezimenduk esku hartu dute hartan. Honekin loturik, Erdi Aroko pintxoaren Nazioarteko Lehiaketa bururatu da Hondarribian. Irungo Dies Oiassonis Jaialdian, Pintxo Erromatarraren Bidea dinamizatu dugu eta 19 establezimenduk esku hartu dute hartan.

04 **TURISMOA**

- Bertako produktuen astea Hondarribian. Hondarribiko 6 establezimenduren eta Laguardiako sukaldari baten partaidetza koordinatu da. Hain zuzen ere, Erdi Aroko Hiri eta Hiribilduen Sareko hiri partaidea da Laguardia, eta 7 tailer gastronomiko antolatu dira horrenbestez.
- Esperientzia enogastronomikoak: aurtengo honetan, web bidezkoa izan da promozioa.
- Euskadi bizipenak. 9 bizipen guztira, turismo jarduerekin lotuak.
Euskal kostaldea: beste begirada bat SUPean (SUP ibilbideak Txingudiko badian eta nazioarteko zubietako baten azpian), bataioa urpean Hondarribian (egun osoko plana beste baliabide batzuekin), Hiruzta upategia, Hondarribia, Erdi Aroko hiria itsasoaren eta mendiaren artean (egun osoko plana), Irun eta haren iragan meatzaria, erromatarren garaitik (egun osoko plana), Guadalupeko gotorlekuko leku debekatuak (egun osoko lana), Bela nabigazioa Txingudiko badian (Navegavela), Bidasoan nabigatzea edo arraun egitea eta txakolinaren dastatzea (egun osoko plana), Mendian ibiltzea Aiako Harriko Natura Parkean (egun osoko plana, arratsaldea Hondarribian).

Familia turismoa

Une honetan Irun eta Hondarribiko 11 establezimendu ari dira parte hartzen eta Familia Turismorako zigilua edo egiaztagiria eskuratu dute.

Uretako turismoa

Hondarribia Abian ekimenaren arabera, nautika sektorean bideraturiko dinamizazio planari jarraiki, komunikazio plan bat, sare sozialetan kanpaina bat eta udako informazio orria gauzatu dira. 19 parte hartzaile izan dira: 18 Hondarribian eta 1 Irunen. Jardueren gaineko informazio orri bat prestatu da turismo bulegoetan banatzeko, eta bideoak eta panelak eguneratu dira.

Ferriak eta promozioak

6 feriatan hartu dugu parte guztira: Fitur, Ababor, Bioterra, Expovacaciones Bilbo, Intur Valladolid eta Beveggie Ficoba.

Komunikazioa

Urteko komunikazio planari jarraiki, bereziki landu dugu aurten sare sozialen bidezko promozioa. Sareetan bideratu diren erreportaje eta kanpainen bidez indartu da komunikazio plana.

Promozioa hedabideetan, hala nola Sud Ouest egunkarian, Ipar Euskal Herriko merkatuan bereziki eragiteko, bai eta Interneten ere, Gipuzkoa Kosta eta Guide du Pays Basque-ren turismo helmugekin batean. Kanpaina indartu da, sare sozialen eta intereseko hedabideen bitartez. Bereziki ekin zaio publiko frantsesari, SUD Ouest, TVPI Iparralde eta GUIDE du Pays Basque hedabideen bitartez. Eskualdearen gaineko bi erreportaje egin dira Tusdestinos.net helbidean, sare sozialetan. Bidasoa Txingudi Mugaz gaindiko Partzuergoarekin batean kanpainak bideratu dira Pau, Tarba, Okzitaniako Tolosa, Zaragoza, Burgos eta Valladolideko sare sozialetan. Landu ere egin ditugu, sare sozialetan eta, nautikaren sektorearen komunikazio plana eta Erdi Aroko Hiri eta Hiribilduen Sareko hirien urteko estrategia. Spot bidezko kanpaina bat bideratu dugu zinemetan eta publizitatea paratu Txik Txak autobusetan.

Turismo informaziorako euskarriak

Aurtengo honetan Irun eta Hondarribiko turismo lojamenduen gida eguneratu eta editatu dugu, bai eta planoak eta MICE gida digitala berrargitaratu ere. Irungo bisita gidatuak dinamizatzeke, informazio orri bat prestatu dugu Irungo udako turismo eskaintzaren berri emateko.

Irun eta Hondarribiko 60.000 plano berrargitaratu ditugu, eta lan egin dugu, halaber, Gipuzkoako Turismo Gida eta Petit Futé gida eguneratzeko.

Irungo bulegoan, proiektu pilotu gisa, Kolore Kolore emakume artisau elkartearen erakusketa bat

antolatu eta Goyeneche Fundazioaren beirazko bitxien erakusmahai bat atondu dira.

www.bidasoaturismo.com webgunea

Lanean segitzen dugu webgunean, eduki arinak eta praktikoak bideratuz. 48.750 kontsulta izan ditugu guztira, 2022an baino gehixeago (% 3,5).



Aurtengoan, HTAraiko ekintzen bitartez egin dugu lan weberako sarbidea erraza izan dadin AA mailan, SEO ekintzetan, eta Irugurutzetaren gaineko appan, ingelesezko edukiak hartzeaz gainera eskura baitago webgunean.

Bisitarien harrera

Bereziki aipagarria da bisitarien kopuruak gora egin duela turismo bulegoetan eta bisitari frantsesa eta, oro har, kanpoko nazioetako berreskuratzen ari garela.

Udako hiletan, Madril, Katalunia, Gaztela-Len eta Andaluziatik iritsi da batez ere Espainiako estatuko turismoa. Azkenaldi honetan gorantz egin duen joera dugu Gaztela-Leon eta Andaluziako bisitarien kopuruaren hazkundera. Erbesteko turismoari

dagokionez, Frantzia dugu bisitarien jatorri nagusia (% 16), eta Alemania, Erresuma Batua, Estatu Batuak eta Belgika ditugu hurren.

Videowall pantaila bat eta ukipen pantaila bat egokitu dira kanpoaldean. Asebetetze inkestak jasotzeko gailu bat paratu da, halaber, turistaren eskura. Hau guztia egin dugu Turismo Helmuga hobetzeari begira, eskaini beharreko informazioa digitalizatzeko eta hobetzeko, eta pertsona guztiek informazio hori jaso ahal izan dezaten.

Hoteletako okupazio mailaren hilez hileko jarraipena eta azterketa.

Aurtengoan % 73,89koa izan da batez besteko okupazioa hoteletan, % 76,27koa Irungo hoteletan eta % 71,66koa Hondarribikoetan. 2022koak baino apalxeagoak dira datu hauek.

04.4.

Sareak

- Parte hartu dugu Gipuzkoa Kosta, Euskal Kosta Euskadi eta Destinos Euskadi marketan.
- Itourbask, Turismo Bulegoen euskal sarearekiko hitzarmena berritu dugu, urtean zabalik diren bi bulegoetan eta Hondarribiko Portuko aldizkako informazio gunean segi dezan.
- Proiektu amankomunak bultzatu dira Hendaia-ekin, Bidasoa Txingudi Mugaz Gaindiko Partzuergoaren bidez.
- Erdi Aroko Hirien Sarea bultzatu eta koordinatu.
- Laguntza teknikoak Erdi Aroko Hiri eta Hiribilduen Sareari

04 **TURISMOA**

04.5.

Sustapen jarduerak

Honako egiteko hauetan egin dugu aurten lan:

- Erdi Aroko Hiri eta Hiribilduen “Sare klabeen” musika proiektua birbultzatu dugu, eta gisa berean sustatu ditugu komunikazio kanpainak sareetan, webgunean, Facebooken eta Instagramen.
- Argazki Lehiaketa bat, FotoRed, egin dugu Instagramen, Hondarribiko Pintxoen Nazioarteko Lehiaketari begira, eta naturarekin loturiko turismo produktua bultzatu dugu, bi sailetan: natura guneak eta mendiko ibilbideak.
- Atlantikoko Hiri Erromatarren Sarea bultzatu eta koordinatu dugu.
- Destinos Euskadi elkartea bultzatu dugu. 2023an, elkartearen lehendakaritza izan dugu Irunek eta Hondarribiak.
- Itsasertz eta Ibai Bidaien Proiektua (IIB SAREA), Experiencias turísticas España programak finantzatua. 10 autonomia erkidegotako 16 erakundek parte hartzen dute hartan, produktu klub izaerako elkarte estrategikoa osatuz. Haien helburua da itsasertz eta ibai bidaien arloan lehen erreferentzia bihurtzea, Getxo eta Basquetourrekin batean, bazkide kolaboratzaile gisa ari da Bidasoa Bizirik sare horretan.

04.6.

Turismo informazio zerbitzua

- Aurrez aurreko kontsulten kopurua guztira: 54.112.
- Kanpoko kontsulten kopurua guztira: 1.129.
- Facebook bidezko zaleak: 14.410
- Kontsultak Interneten: 48.750



05

Behatokia, Europarekiko lankidetzaz/ partzuergoa

05 BEHATOKIA, EUROPAREKIKO LANKIDETZA/ PARTZUERGOA

Urte bereziki bizia izan da aurtengoa, 2023koa, EUROPAKO BATASUNAREN NEXT GENERATION EU programaren bitartez finantzatu den LEHENERATZE, ERALDATZE ETA ERRESILIENTZIA PLANAREN arabeko proiektuetan eginiko aurrerapenei dagokienez. Horrez gainera mugaz gaindiko proiektu berri bat abiatu da, Espainia, Frantzia eta Andorraren artean Mugaz Gaindiko Lankidetzarako hitzarturiko Programa Eragileak (POCTEFA delakoak) finantzaturik, eta eduki berriak plazaratu dituen erronka eta lankidetzaren esparru berri eta zabal baten aurrean gaude, beraz, Euskadi, Nafarroa eta Pirinio Atlantikoetako 8 erakunde.

Bidasoa Txingudi mugaz gaindiko Partzuergoak mugaz gaindiko lankidetzarako aintzat hartuak dituen programa ezagunenez gainera –horien arteko ditugu kultura, kirol eta euskararen sustapenari begira aintzat harturikoak–, berritasun batzuk hartu dira arian-arian aintzat turismoaren sustapenaren esparruan, eta proiektuak eta lan lerroak indartu dira, halaber, beste arlo batzuetan, hala nola jende guztiaren mugikortasun jasangarriaren sustapena eta herritarren parte hartzea bultzatzeko ekimenak, HIRUAK BAT laguntzetarako deialdien bitartez. Laguntza hauen bitartez sustatu eta bultzatu nahi dira hiru hiriak, Irun, Hendaia eta Hondarribia, batera hartuko dituzten mugaz gaindiko proiektuak.

Eta informazio sozioekonomiko garrantzitsuena partekatzen segitu du Bidasoaldeko Hiri Behatokiak, enpresei, erakunde eta instituzioei gure eskualdearen ikuspegi eguneratua eta dinamikoa eskaintzeko.

05.1.**Bidasoaldeko Hiri Behatokia**

Bidasoaldeko Hiri Behatokiak mota askotako jarduerak bideratu ditu aurtengoan, eta bertako eta kanpoko iturrietatik bilduriko 60 albistetik gora ezagutarazi ditu. 9 arloekin loturiko dokumentu interesgarriak partekatu ditu eta berrikusi ditu funtsezko 500 adierazle. Jakin bedi, bestalde, Irun eta Hondarribiko udaletatik edo Bidasoa Bizirik agentzietatik beretik eginiko 30 informazio eskaera baino gehiagori erantzun diela.

Hilero igorri ditu, halaber, eskualdeko bilakaera sozioekonomikoa zertan den argitzen duten 72 informazio buletin. Eta kontratazioen gaineko txostenak ere banatu ditu, 12 guztira, lan merkatuko egoerari buruzko datu zehatzak eskaintzeko xedean.

Adierazleek islatu bezala, joera positiboa nabari da Bidasoaldeko lan merkatuaren bilakaeran, emendatu egin da kontratazioa eta murriztu, halaber, langabezia tasak. Enpleguan egonkortasuna gero eta sendoagoa dela iradokitzen digu, era berean, mugarik gabeko kontratuen presentzia esanguratsuak.

Bidasoaldeko enpleguaren egoera azaltzen duen urteko txostenaren arabera, susperraldi baten zantzuak sumatzen dira lan merkatuan 2023ko bukaeran. **Langabezia tasari** dagokionez, % 11,9ko tasarekin itxi zuen Irunek 2023. urtea, eta % 6,44az Hondarribiak. **Gizarte Segurantzaren altak emanak diren kideen** kopuruari dagokionez, 20.509 erregistratu ziren Irunen 2023ko bukaeran, eta 5.470 Hondarribian garai horretan berean. Era berean, 2023an 16.918 kontratu berri egin ziren Bidasoaldeko eskualdean, haien % 74,5 Irunen egiaztatu ziren, eta beste % 25,5 Hondarribian. Aipagarria da, bestalde, Behe Bidasoan gauzatu ziren kontratuen % 40 mugagabeak direla, eta kontratazioetan halako egonkortasuna dagoela adierazten du datu horrek.

Horrez gainera, Bidasoa eskualdeak sektore anitzeko errealitatea ageri du bere lan ehunean, zerbitzuen arloan batez ere, sektore horretakoak baitira establezimenduen % 78. Eraikuntzaren sektore ageri zaigu hurren, % 14,5eko balioaz, eta industria arloak

establezimendu guztien % 6 dira industria arlokoak. Gipuzkoako industria establezimenduen % 8,5 daude gure eskualdean.



Bidasoa Behereko biztanleriaren hileroko eboluzioa, udalerriaren arabera, Evolución mensual de la población desempleada del Bajo Bidasoa según municipio, 2023

	URRIA/OCTUBRE 2023		AZAROA/NOVIEMBRE 2023		ABENDUA/DICIEMBRE 2023		AZA 23/ABE 23 NOV 23/DIC 23		
	GUZT/TOT	TASA*	GUZT/TOT	TASA*	GUZT/TOT	TASA*	ALD ABS. VAR. ABS.	ALD ERL. VAR. REL.	VAR. TASA (p.p)
IRUN	3.242	11,18%	3.232	11,15%	3.217	11,09%	-15	-0,46%	-0,06
HONDARRIBIA	525	6,39%	536	6,52%	529	6,44%	-7,0	-1,31%	-0,08
BIDASOA BEHEA/ BAJO BIDASOA	3.767	10,12%	3.768	10,12%	3.746	10,07%	-22,0	-0,58%	-0,05
GIPUZKOA	28.592	8,21%	28.288	8,12%	28.419	8,16%	131,0	0,46%	0,04
EAE/CAE	109.645	10,26%	108.152	10,12%	107.779	10,08%	-373,0	-0,34%	-0,04

Iturria/Fuente: LANBIDE
Burutua: Bidasoa bizirik /Elaboración: Bidasoa activa
* Población activa a 2022

Bidasoa Behereko langabetuen urtearteko eboluzioa, udalerriaren arabera, Evolución interanual de la población desempleada del Bajo Bidasoa según municipio, 2022/2023

	ABENDUA/DICIEMBRE 2022		ABENDUA/DICIEMBRE 2023		ABE 22/ABE 23 DIC 22/DIC 23		
	GUZT/TOT	TASA*	GUZT/TOT	TASA*	ALD ABS. VAR. ABS.	ALD ERL. VAR. REL.	VAR. TASA (p.p)
IRUN	3.205	10,98%	3.217	11,09%	12	0,37%	0,11
HONDARRIBIA	539	6,61%	529	6,44%	-10	-1,86%	-0,17
BIDASOA BEHEA/ BAJO BIDASOA	3.744	10,02%	3.746	10,07%	2	0,05%	0,05
GIPUZKOA	29.437	8,34%	28.419	8,16%	-1.018	-3,46%	-0,18
EAE/CAE	110.798	10,29%	107.779	10,08%	-3.019,0	-2,72%	-0,21

Iturria/Fuente: LANBIDE
Burutua: Bidasoa bizirik /Elaboración: Bidasoa activa
* Población activa a 2022

aberastuko dituen turismo produktu berri bat sortzea.

Turismo Helmuga Adimendunen bete beharren arabera, aintzat harturiko guneetan bideratuko diren ekintzetan funtsezkoa da zeharkako ikuspegia eta balioak, hala nola trantsizio berdea eta jasangarria, energia eraginkortasunaren hobekuntza, trantsizio digitala eta turismo sektorearen lehiakortasunaren hobekuntza, kontuan hartzea. 2024an emango zaio proiektuari hasiera eta 3 urtez iraungo du.



POCTEFA 2021-2027

2023ko bukaeran, Bidasoa Bizirik agentziak bultzaturiko proiektu berri bat onartu du POCTEFA, Espainia, Frantzia eta Andorraren artean Mugaz Gaindiko Lankidetzarako hitzarturiko Programa Eragilearen Kudeaketa Aginteak. EDIT, ECODIGITAL INDUSTRIAL TRANSFORMATION izeneko proiektuaren funtsean daude enpresek trantsizio bikoitzaren, hau da, trantsizio digitalaren eta trantsizio berdearen aurrean lehiakor izaten segitzeko bideratu behar duten eraldatze prozesuaren oinarriak. Horretarako landuko da Produktuaren Pasaporte Digitala (PPD), ingurumenaren jasangarritasunaren eta enpresen produktuen zirkulartasunaren gaineko gardentasuna sustatuko duen dokumentua.

Ehun Jasangarri eta Zirkularren arloan hartu zen lehendabiziko aldiz EBan aintzat Produktuaren Pasaporte Digital (PPD) deritzan kontzeptua, eta sakonago definitu zen ondoren Europako Batzordeko Produktu Jasangarrien Ekodiseinuaren Araudian (ESPR), hainbat sektoretan bideratzeko.

05.2.

Europako programak

Europako Batasunaren Next Generation Funtsak

Proiektu berri bat dugu EUROPAKO BATASUNAREN NEXT GENERATION EU programaren bitartez finantzatu den LEHENERATZE, ERALDATZE ETA ERRESILIENTZIA PLANAREN bigarren fasean: Irugurutzeta THA. Haren jatorrian dago Irun – “Oiasso Hiri Erromatarra” Turismo Helmuga Adimenduna proiektuari segida emanez Irugurutzeta aldeko industria, meatze eta kultura ondarea birbalioztatzeko egin zen azterketa bat. Helburua da, hain zuzen ere, monumentu, historia eta natura ondare hori berreskuratzea eta hartan bisitarien eta bertakoen esperientziak aniztu, zabaldu eta

05 **OBSERVATORIO, COOPERACIÓN EUROPEA / CONSORCIO**

Euskadi, Nafarroa eta Pirinio Atlantikoetako beste 7 tokiko garapen erakunde, ikerketa gune eta enpresa esku hartzen ari dira EDIT proiektuan, eta 2024 eta 2026 bitartean luzatuko da.

05.3.

IRUN Zientzia eta Berrikuntzaren Hiria

Red Innpulso, Zientzia eta Berrikuntzaren Hirien Sarearen bereizgarri hori eman diote Iruni. Zientzia, Berrikuntza eta Unibertsitateen Ministerioak bultzatu eta, beste batzuekin batean, finantzaturiko proiektua da hori. Sarea osatzen duten 90 udalek neurri berritzaileen aldeko apustua egiten dute hiriaren garapenari begira hainbat arlotan, eta barne antolakuntza, lehiakortasuna eta herritarrekiko zerbitzuen garapen jasangarria dira haietako batzuk.

Informazio gehiago: <https://redinnpulso.es/>

05.4.

Partzuergoa

Mugikortasun jasangarria

Mantentze zerbitzu bat kontratatu dugu aurtengoan, mugaz gaidiko mugikortasunerako mikrolekuan aldiro-aldiro eguneratzeak bideratzearen, eta bisitari eta herritarren eskura jarri dugu zerbitzua <https://smartmob.irunhondarribiahendaye.com/> helbidean.

Irailean ospatu zen Mugikortasunaren Europar Astea, eta mugikortasunaren gaineko bi tailer berezi antolatu ziren haren kariatara, Irun, Hendaia eta Hondarribiko udal zerbitzuekin eta Balazta eta Recycl'Arte elkarteekin batean:

- “Village Vélo”: actividades de sensibilización a la movilidad sostenible para todos los públicos y en particular para niños y niñas.

- “Nagusikleta”: paseos en bicicleta adaptada para personas mayores con dificultad de movilidad.



Herritarren parte hartzea

2023an bigarren aldikoz, HIRUAK BAT laguntzetarako deialdia egin da hiru hiriak, Irun, Hendaia eta Hondarribia, batera aintzat hartu dituzten mugaz gaidiko proiektuak sustatzeko eta laguntzeko.

Aurtengo honetan, 2 proiektu berri finantzatu dira:

- “Bizikleta mugaz gaidiko eremuan”, bizikletaren jai baten antolakuntza.
- Hiru hitzaldiko zikloa, “Pierre Loti eta Miguel de Unamuno mugan”. Bana, egun, hizkuntza eta hiri bakoitzeko.



Horiez gainera, Bidasoko topaketak antolatu dira lehen aldikoz, mugaz gaindiko interes berezia duten gaien gaineko gogoeta bultzatu nahi duen proiektu soziokulturala. Lehen edizio hau “Adi Bidasoa” kartelaren bidez aurkeztu da eta gazteengana bildu ditu bereziki begiak. Irun, Hendaia eta Hondarribiko Gazte arloek eta eskualdeko beste elkarte batzuek hartu dute parte, eta mugaz gaindiko izaera duten ekimenak proposatu dituzte.

Turismoaren sustapena

Partzuergoaren turismo batzordeak bereziki landu ditu aurtengoan mugaz gaindiko helmuga duten promozio kanpainen sendotze bideak, eta arrakastaz jardun du urte guztian merkatu frantses eta espainiarretako sare sozialetan.

Horrez gainera, segida eman zaio sektoreko profesionaleri gure lurraldeko turismo baliabideen gaineko informazioa eskaintzeko ahaleginari. Xede horri begira, Mugaz Gaindiko Turismoaren gaineko 3 Newsletter zenbaki argitaratu dira, balizko bisitariei informazioa helarazteko.

Berriro zabaldu da Bidasoko Interpretazio Gunea, eta aldizkako erakustaldiak itzuli dira horrenbestez hartara:

- Maiatzeko Eskola Kirolaren Jaian egindako marrazkien erakusketa: “Mugikortasunaren maskota marraz ezazu”.
- Gazteentzako Lehen Mugaz Gaindiko Arte Digital Lehiaketara aurkezturiko lanen erakusketa.

Aurtengo berritasun gisa, ateak zabaldu ditu Bidasoko Interpretazio Guneak irail partean, Ondarearen Jardunaldi Europarren garaian.

Kultura eta euskara

Abuztuaren 18an, 19an eta 20an, mila lagunek baino gehiagok segitu ahal izan dute zuzenean BidasoaFolk jaialdiaren XXII. Ekitaldia, eta hartan bertako eta kanpoko musika emanaldi ugari gozatu.

Ekitaldi guztiz sendotua da hau, eta gero eta kopuru handiagoan hurbiltzen da hartara askotariko publiko

aditua edota ezagutu nahiak bultzatua, egitaraua osatzen duten musika moldeen, bertakoen nahiz kanpokoek, bizikidetzak erakarririk. Euskararen arloan, sostengua ematen diogu betiere bertsolaritzari, gure eskualdean presentzia gero eta handiagoa duen mugimendua den aldetik, ugari baitira tailerrak eta Bertso Eskolaren bidezko ekitaldiak. Euskararen idatzizko eta ikus-entzunezko zabalkundeari dagokionez, berriro ere egin dira aurtun bertako euskarazko hedabideentzako laguntzetarako deialdiak.



Kirola

Maiatzaren 25ean, Bidasoa-Txingudi eskualdeko ikastetxeetako 600 ikaslek baino gehiagok hartu dute parte aurtengo Eskola Olinpiada Txikietan. Ekitaldi honen helburua da, hain zuzen ere, hiru udalerrietako ikasleak kirolaren bitartez hurbiltzea eta elkartzea, kirolaren praktika bizi ohitura gisa bultzatzea, eta funtsezko balioak, hala nola elkarlagintza eta adiskidetasuna eta talde lana, Bidasoa-Txingudi Mugaz Gaindiko Partzuergoak, Irun, Hendaia eta Hondarribiko kirol klub eta elkarteekin batean, antolaturiko tailer eta jokoen bitartez sustatzea.

06

Proiektuak



KREA BIDASOA 2023

Ekintzailera, berrikuntza eta sormenaren azoka

 Martxoaren 30ean

Krea Bidasoa, ekintzailera, berrikuntza eta sormenaren azokaren hamalagarren edizioa izan da aurtengoa, Bidasoa Bizirik agentziak antolatua. 400 pertsonatik gora bildu ohi dira hartara, eta ekimen honen helburua da, hain zuzen, Bidasoaldeko pertsona ekintzaile, enpresa, erakunde publiko eta pribatu, unibertsitate eta ikastetxeen arteko lankidetzeta eta bizipen berritzaileen trukerako gune bat sortzea eta sendotzea, elkarren arteko harremanak indartzeko, besteen esperientziak ezagutzeko, ezagutzak zabaltzeko, eta joera eta negozio aukera berriak identifikatzeko.

“Eskualdea eraldatuz” lelopean, tailerrak, hitzaldiak eta eskualdean 50 urtetik gora eginak diren enpresa askoren lekukotasunak bildu ditu Krea Bidasoak bere 2023ko edizio honetara. Jardunaldian hartu du, halaber, parte BIC Gipuzkoa enpresak; izan ere, Bidasoa Bizirik agentziarekin batean, proiektu pilotu bat abiarazi du enpresa horrek Irunen eta Hondarribian ekimen berritzaileak sustatzeko. Ekitaldiaren bitartean, networking gunez hornituriko museo areto bilakatu zen Krea Bidasoaren zati bat eta Kit Digital programak enpresa txikiei eskaintzen dizkien soluzio digitalak aurkeztu ziren. Baina izan zen besterik. ‘Mundo dron’ izeneko erakusketa, esate baterako, merkatuan topa daitezkeen simuladore bat eta dronak erakusgai.

Eskualdeko eta eskarmentu handiko hamabost bat enpresaren erakusketa ere egin zen Krea azokaren hamalagarren edizio honetan. Irunen eta Hondarribian 50 urtetik gorako jarduna eginga duten industria enpresak: Alberdi Makila, Algón estructuras metálicas para muebles, Anbol, Brioche Pasquier Irun, Calzanor, Conatec Sal, Construcciones y Auxiliares Ferrocarriles, Correas Francisco Javier Muñoz, DDC, Deco Didheya, Dinuy, Franco Español de salazones, Fun Sports, Grupo industrial Kempchen Comdiflex, Iruma diseño y proyectos industriales, Lácteos Doncel, Nueva editorial, Obrador Arbelaiz, Ondarribi Grafikagintza, José Javier Osinaga Bernabé, Pastelería Aguirre, Porres Clásicos, SNA Europe industries Iberia, Soroxarta servicios gráficos, Suministros Jaizkibel, Talleres de Escoriaza, Talleres Landart, Talleres Luma, Talleres mecánicos Bianditz, Troqueles Gaco eta Zenten Bernhard Groten.

ESKUALDEKO ENERGIA PLANA

2023an, Irun eta Hondarribiko Udalekin batean eta enpresa kontsultoreen aholkularitza teknikoaz, hainbat ekintza bururatu ditu Bidasoaldeko Garapen Agentziak Bidasoaldeko energia Plan onartu berriaren esparruan:

- 7 plan landu ditu Bidasoaldeko 7 industria enpresa traktoreen karbono aztarna neurtzeko eta murrizteko.
- Energia eraginkortasunaren arloan, laguntza teknikorako proiektu pilotuaren exekuzioa enpresa batean.
- Ibilgailu elektrikoaren eta mugikortasun jasangarrirako beste aukera batzuen gaineko komunikazio/sentsibilizazio kanpaina. Mugikortasun jasangarriaren aldeko asteko jarduera gisa hartu da aintzat.
- Eskualdeko mahaiaren koordinazioa eta aholkularitza Udalei, energia jasangarriaren gaineko 4/2019 Legearen arabeko betebeharren gainean.
- Oinarrizko ikastaroa agentziako langileen prestakuntza sendotzeko eta energiarekin loturiko gaien gainean sentsibilizatzeko.

BERDINTASUNA

Bidasoa Bizirik Emakunderen erakunde laguntzaile gisa bereizia izan da, aintzat hartu baititu institutu horrek agentziak azken urteetan bere antolakuntzan emakumeen eta gizonen artean berdintasun politika garatzeko bideratu dituen ekintzak eta hartu dituen konpromisoak, eta aipaturiko ezagutza egin eta haren berri eman du EHAOan, 2023ko martxoaren 6an. Halatan, bereziki indartu du ezagutza horrek agentziak genero berdintasunaren arloan harturiko konpromisoa eta horrenbestez hartu izan da agentzia aintzat Bai Sarearen, hau da, Emakunderen erakunde laguntzaileen sarearen barrenean.



07

Bidasoa bizirik kopurutan / 2023

Ekintzailletza

530

Pertsonari eman
zaie arreta

64

Burututako
bideragarritasun
planak

248

Pertsonak prestatu
dira ekintzailletza
prozesuetan

406

Lanbide Heziketa
zentroetako pertsonak parte
hartu dute ekintzailletza
ekintzetan

Enpresa

56

Lehiakortasunaren
hobekuntzarako eta
eraldatze digitalerako
programan parte
harturiko enpresak

57

Informazio eta
Kontsulta zerbitzuan
arreta harturiko
enpresak

83

lehiakortasuna hobetzeko
ekintzak ezartzeko
programetan parte
hartzen duten enpresak

189

Prestakuntza-saioetan
eta/edo lankidetzan
dinamiketan parte hartzen
duten enpresak

Merkataritza Xehekaria

27

Informazio eta
kontsulta zerbitzuan
arreta harturiko
saltokiak

156

Lehiakortasunaren
hobekuntza, berrikuntza
eta lankidetzan dinamiketarako
programa

Gaitasun profesionala eta enplegua

3.783

Pertsonari arreta eman zaie etorkizuna duten lanbiden El Espazioan

746

Pertsona aritu dira orientzaioan, enplegu bilaketan eta diseinu profesionalan

124

Lan eskaintza

326

Eskaintza gestionatu dira enplegurako 2 asteetan eta Turislan

Formakuntza

410

Pertsona prestatzen ari dira, aurrez-aurreko

45

Prestakuntza-ekintza



31
Presentzialak



14
Online

Turismoa

54.112

Turismo bulegoetan izandako bisitak

14.410

Jarraitzaileak Facebooken

48.750

Internet bidezko kontsultak

08

Urtekari sozio- ekonomikoa / 2023

-
- 01 **Demografia eta gizartea**

 - 02 **Lan merkatua**

 - 03 **Enpresa ehuna**

 - 04 **Nekazaritza, abeltzaintza eta arrantza**

 - 05 **Industria**

 - 06 **Eraikuntza**

 - 07 **Merkataritza**

 - 08 **Turismoa**

 - 09 **Garraioa eta azpiegiturak**

 - 10 **Zerbitzuak**

 - 11 **Ekipamenduak**

08 URTEKARI SOZIOEKONOMIKOA / 2023

Behe bidasoa eskualdeak guztira 87.770 biztanle zituen 2023ean, eta horrenbestez, km²—ko 1.127 biztanleko dentsitatera iritsi da dagoeneko.

LANBIDEk eskainitako datuen arabera, 38.010 lagunek osatzen dute Bidasoa eskualdeko biztanleria aktiboa, 2023an. LANBIDEn izena emaniko langabetuen kopuruari dagokionean, abenduaren 31an 3.746 langabetu dira guztira, eta horrek esan nahi du %10,07 ingurukoa dela langabezia tasa biztanleria aktiboaren gainetik. Era berean formalizaturiko kontratuak 17.293 dira guztira. Aipatzekoa da, Gipuzkoan guztira eginiko kontratuei dagokionean %7,6koa dela eskualdeko kontratuen partaidetza, aurreko urtekoa baino baxuagoa izanik ehuneko hori.

Gizarte segurantzarako afiliazioak 25.972 pertsona dira, 20.509 Irungo udalerrian eta 5.463 Hondarribiko udalerrian.

Eskualdeko hezkuntza zentroetako ikasleak 12.004 ziren. Matrikulazioen %63 ikastetxe publikoetan egin da eta gainerako %37 zentro pribatuetan. Bidasoako kanpusean (Mondragon Unibertsitatea) 270 ikasle ari dira guztira, bai eskualdekoak bai beste udalerrri batzuetakoak.

Eskualdeko enpresa ehuna, berriz, 6.201 establezimenduk osatzen dute 2023ean; horietan 26.318 langile ari dira, eta horietatik %77,7a hirugarren sektorean ari da lanean.

Lehen sektoreari dagokionean, aipatzekoa da, Hondarribiko ontzidiak aurrera eramaniko arrantza jarduera bikaina, 26 ontzi eta 299 marinelekin, kontuan izanik soilik baxurako azpisektorean jarduten dutela. Kanpainan 5.721 tona arrain atzeman zituzten.

Eskualdeko industri sektorea 364 establezimenduk osatua dago eta 3.830 lagun ari dira horietan lanean. 3.690 Irunen eta 140 Hondarribian.

Eraikuntzari dagokionean, eskualdean 901 establezimendu daude eta 1.645 langile ari dira horretan lanean.

Eskualdeko hirugarren sektorea (zerbitzuak) 4.850 establezimenduk osatzen dute guztira, eta 20.458 lagun ari dira horretan lanean.

Sektore horren barnean aipatzekoak dira:

Merkataritza

Txikizkako merkataritza establezimenduak 875 ziren guztira, horietatik % 84 Irunen daude. Eskualdeko merkataritza dentsitatea 10,08 establezimendu da 1.000 biztanleko.

Garraioa eta Logistika

Eskualdean 287 dira errepideko merkantzien garraioan diharduten enpresak, horietatik %64ak ibilgailu astunak erabiltzen ditu eta gainerako %36ak ibilgailu arinak.

Turismoa

2023. urtean 45 ostatu establezimendu zeuden eskualdean. Establezimendu horiek 2.481 plaza eskaintzen dituzte guztira. Urte berean zehar, 1,6 egun izan dira bisitariek batez beste eman dituzten gauak.

Eskualdeko hotel okupazioak %74ko okupazioa izan zuen urtean batez beste.


08 **URTEKARI SOZIOEKONOMIKOA / 2023**

08.1.
Demografia eta gizartea

08.1.1 Demografia

Behe Bidasoako biztanleria, biztanleriaren %-ekoa


2023



■ Irun	79 %
■ Hondarribia	21 %

*Iturria: Irungo Udala,
Hondarribiko Udala*

	Irun		Hondarribia		Behe Bidasoa	
	Biztanle kop.	%	Biztanle kop.	%	Biztanle kop.	%
Sexua						
Gizonak	31.216	49	8.456	49,6	39.672	49
Emakumeak	32.520	51	8.578	50,4	41.098	51
Guztira	63.736	100	17.034	100	80.770	100
Adina						
0-14	7.865	12,3	2.011	11,8	9.876	12,2
15-29	9.911	15,6	2.741	16,1	12.652	15,7
30-44	12.376	19,4	2.633	15,5	15.009	18,6
45-59	14.627	22,9	4.173	24,5	18.800	23,3
60-74	11.413	17,9	3.290	19,3	14.703	18,2
75-89	6.544	10,3	1.962	11,5	8.506	10,5
+ 90	1.000	1,6	224	1,3	1.224	1,5
Guztira	63.736	100	17.034	100	80.770	100



Azalera eta biztanleriaren dentsitatea Behe Bidasoan 2023

	Azalera (km ²)	Biztanleria	Dentsitatea (bizt./km ²)
Behe Bidasoa	71,6	80.736	1.127,6
Irun	42,8	63.736	1.489,2
Hondarribia	28,8	17.034	591,5
Gipuzkoa	1.980,3	728.027	367,6

Iturria: Eustat, Irungo Udala, Hondarribiko Udala

08 URTEKARI SOZIOEKONOMIKOA / 2023

08.1. Demografia eta gizartea

08.1.2 FormakuntzaMatrikulazioak unibertsitatez kanpoko prestakuntza arautuko zentroetan 2023

	Irun			Hondarribia			Behe Bidasoa		
	Publ.	Prib.	Guzt	Publ.	Prib.	Guzt	Publ.	Prib.	Guzt
Haur/lehen/bigarren hezkuntza (1)	4.563	2.783	7.346	1.113	853	1.966	5.676	3.636	9.312
Batxilergoa	589	331	920	134	129	263	723	460	1.183
E.M.H.Z. (2)	464	98	562	-	-	-	464	98	562
G.M.H.Z. (3)	661	142	803	-	-	-	661	142	803
Beste batzuk	-	144	144	-	-	-	-	144	144
Guztira	6.277	3.498	9.775	1.247	982	2.229	7.524	4.480	12.004

(1) Haurtzaindegiak eta 2 urtekoen gelak barne daude; (2) Erdi mailako prestakuntza zikloak; (3) Goi mailako prestakuntza zikloak.
Iturria: Irungo Udala, Hondarribiko Udala,

Behe Bidasoako ikasleen matrikulazioak unibertsitateetan 2023/2024

	Matrikulaturiko ikasle kop.
Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU)	1.020
• Gipuzkoako Kanpusa	689
• Bizkaiako Kanpusa	193
• Arabako Kanpusa	138
Deustoko Unibertsitatea (Donostiako Kanpusa)	192
Nafarroako Unibertsitatea (TECNUM, Donostiako Kanpusa)	192
Mondragon Unibertsitatea	109

Iturria: UPV/EHU, Nafarroako Unibertsitatea, Deustoko Unibertsitatea, Mondragon Unibertsitatea

Mondragon Unibertsitatearen Bidasoako Kanpusa		2023/2024
		Alumnado matriculado
Gradua Enpresa Administrazio eta Zuzendaritzan		174
Ekintzailatza eta Berrikuntza Lidergo gradua		96
Guztira		270

Iturria: Mondragon Unibertsitatea

08.2. Lan merkatua

08.2.1 Enplegua

Biztanleria aktiboa Behe Bidasoan	2023
Irun	29.607
Hondarribia	8.403
Behe Bidasoa	38.010
Gipuzkoa	357.798
EAE	1.098.641

Iturria: Lanbide

08 URTEKARI SOZIOEKONOMIKOA / 2023

08.2. Lan merkatua

08.2.2 Kontratazioa

Behe Bidasoa eta Gipuzkoan formalizatutako kontratuak

	2019	2020	2021	2022	2023
Behe Bidasoa	26.655	19.167	21.424	19.463	17.293
Gipuzkoa	293.781	207.769	258.260	250.463	227.878
% Eskualde/Gipuzkoa	9,1	9,2	8,3	7,8	7,6

Iturria: Lanbide

Behe Bidasoan kontrataturiko pertsonen profila

2023

Sexua	Emakumea (% 54)
Adina	25 urtetik 44 urtera (% 45)
Kontratuaren iraupena	Zehaztutako iraupena (% 62)
Kontratuaren lege sailkapena	Behin-behineko zirkunstantziala (% 67)
Ekonomi sektorea	Zerbitzuak (% 89)

Iturria: Lanbide

08.2.3 Gizarte segurantzarako afiliazioak

Afiliazioak Behe Bidasoan, motaren arabera

	2019	2020	2021	2022	2023
Erregimen orokorra	17.424	16.863	17.608	18.023	19.087
Autonomoak	6.007	6.021	5.985	5.873	5.870
Erregimena (Nekazaritzakoa, Itsasoa eta Etxeko enpleg.)	1.017	1.020	1.023	1.010	1.015
Guztira	24.448	23.904	24.616	24.906	25.972

Iturria: Gizarte Segurantzako Diruzaintza Orokorra

08.2.4 Langabezia


Lanbiden erregistraturik dauden langabezia dauden pertsonak

	2019	2020	2021	2022	2023
Behe Bidasoa	3.981	4.374	4.027	3.744	3.746
Irun	3.391	3.744	3.433	3.205	3.217
Hondarribia	590	630	594	539	529
Gipuzkoa	30.323	34.433	30.553	29.437	28.419

Iturria: Lanbide

Langabezia tasa Behe Bidasoa, Gipuzkoa eta EAEan

2013-2023



Langabezia tasa	2023
EAE	10,08 %
Gipuzkoa	8,16 %
Behe Bidasoa	10,07 %
Irun	11,09 %
Hondarribia	6,44 %

Iturria: Lanbide, 2022ko biztanleria aktiboa kalkulatzeko duen metodologia egokitzean oinarrituta

Langabezia dauden pertsonen profila Behe Bidasoan	2023
Sexua	Emakumezkoa (% 57)
Adina	44 urte baino gehiago (% 56)
Ikasketa maila	Bigarren hezkuntza (% 47)
Jarduera sektorea	Zerbitzuak (% 75)

Iturria: Lanbide

08 **URTEKARI SOZIOEKONOMIKOA / 2023**

08.3.

Enpresa ehuna

08.3.1 Establezimenduak eta enplegua 2021

Establezimenduak jarduera motaren arabera: 6.201

1,4 %

Nekazaritza, arrantza eta abeltzaintza

5,9 %

Industria

14,5 %

Eraikuntza

78,2 %

Zerbitzuak

Empleo por rama de actividad: 26.318

1,5 %

Nekazaritza, arrantza eta abeltzaintza

14,6 %

Industria

6,2 %

Eraikuntza

77,7 %

Zerbitzuak

Iturria: Eustat

08.3.2 B.P.G.

Barne-produktu gordina BPG, per capita, (prezio arruntak €) 2020*

	per capita BPG (€)	Indizea (EAE=100)
Irun	28.073	86
Hondarribia	23.914	73
Behe Bidasoa	27.159	83
Gipuzkoa	33.433	102
EAE	32.702	100

*Iturria: Eustat *azkeneko datua*


08.4. Nekazaritza, abeltzaintza eta arrantza

08.4.1 Nekazaritza

Usategiak Behe Bidasoan: kopurua eta tamaina	2023
Usategi kopurua	600
Batez besteko tamaina (Hak)	1,8

Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundia

Azalera osoa Behe Bidasoan, motaren arabera	2023
---	------



■ Nekazaritza azalera	51 %
■ Baso-azalera	46 %
■ Beste bat	3 %

Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundia

08.4.2 Abeltzaintza

Abelburuak Behe Bidasoan: kopurua eta mota	2023
Abelburuak, kopurua	4.622
Abelburuak, abereen arabera	Ardi (53%), behi (30%)

Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundia

08 **URTEKARI SOZIOEKONOMIKOA / 2023**

08.4. Nekazaritza, abeltzaintza eta arrantza

08.4.3 Arrantza

Arrantza jarduera	2023
Ontziak	
Artisau erara	10
Azalera	16
Guztira	26
Marinelak	
Artisau erara	43
Azalera	256
Guztira	299
Atzemandakoak	
Bolumena (kilotan)	5.721.428,20
Arrain motak (%)	hegaluzea (% 46), berdela (% 29), antxoa (% 22)

Iturria: Hondarribiko San Pedroko Marinelen Kofradia

08.5. Industria


Industri establezimenduak eta enplegua, jarduera motaren arabera							2023
	Irun		Hondarribia		Behe Bidasoa		
	Establ.	Enpleg.	Establ.	Enpleg.	Establ.	Enpleg.	
Elikagaiak, edariak eta tabakoa	34	546	6	43	40	589	
Ehungintza, jantzigintza, larrua eta oinetakoak	24	95	4	5	28	100	
Egurra eta artelazkia	11	43	1	1	12	44	
Papera	3	24	-	-	3	24	
Arte grafikoak eta euskarri grabatuen kopia	21	50	4	6	25	56	
Industria kimikoa	4	35	-	-	4	35	
Kautxua eta plastikoak	18	417	1	1	19	418	
Metalikoak ez diren beste produktu mineral batzuk	4	38	1	1	5	39	
Burdin produktuak, altzairua...	1	2	-	-	1	2	
Produktu mineralak, makineria eta ekipamendua izan ezik	76	1.075	1	1	77	1.076	
Produktu informatikoak, elektronikoak eta optikoak	12	240	-	-	12	240	
Material eta ekipamendu elektrikoa	7	63	-	-	7	63	
Beste ataletan ez dagoen makineria eta ekipamendua	17	227	3	6	20	233	
Motordun ibilgailuak, atoiak eta erdiatoiak	4	224	-	-	4	224	
Garraio-materiala	2	301	1	1	3	302	
Altzariak eta manufakturako beste industria batzuk	31	100	3	3	34	103	
Makineria eta ekipamenduaren konponketa eta instalazioa	23	89	28	46	51	135	
Energia elektrikoa, gasa, lurrina eta aire girotuaren hornidura	3	7	2	3	5	10	
Ura hartu, araztu eta banatzea	4	66	1	20	5	86	
Ur zikinak biltzea eta tratatzea	7	48	2	3	9	51	
Industria Guztira	306	3.690	58	140	364	3.830	

Iturria: Eustat


08 **URTEKARI SOZIOEKONOMIKOA / 2023**

08.5. Industria

Establezimenduak



Enplegua




■ Elikagaiak, edariak eta tabakoa ■ Papera eta arte grafikoak ■ Kautxua eta plastikoak ■ Metalurgia eta prod. Metalikoak
 ■ Material eta ekipamendu elektrikoa ■ Manufacturako beste industria batzuk ■ Beste batzuk

08.6. Eraikuntza

Establezimenduak eta enplegua eraikuntza sektorean 2023

	Irun		Hondarribia		Behe Bidasoa	
	Establ.	Enpleg.	Establ.	Enpleg.	Establ.	Enpleg.
Eraikuntza guztira	767	1.419	134	226	901	1.645



Iturria: Eustat

08.7. Merkataritza

Txikizkako merkataritza establezimenduak Behe Bidasoan, jarduera motaren arabera 2023


	Irun	Hondarribia	Behe Bidasoa
Elikagaiak, edariak eta tabakoa	281	60	341
Ehungintza, jantzigintza, oinetakoak eta larru-dendak	141	30	171
Farmazia, drogeria, lurrin-dendak	38	6	44
Etxeko ekipamendua	54	9	63
Liburuak, egunkariak, paper-dendak	25	5	30
Txikizkako beste dendak	146	29	175
Txikizkako jarduera, establezimenduz kanpo*	43	8	51
Txikizkako Merkataritza Guztira	728	147	875

Iturria: Eustat | **vending, azoka txiki ibiltarietako salmenta, online eta katalogoan zehar salmenta

08 **URTEKARI SOZIOEKONOMIKOA / 2023**

08.7. Merkataritza

Txikizkako merkataritza establezimenduak Behe Bidasoan 2023



Iturria: Eustat

Merkataritza dentsitatea, jarduera mota nagusien arabera, (establez. 1.000 bizt.) 2023

	Irun	Hondarribia	Bajo Bidasoa
Elikagaiak	4,41	3,5	4,2
Ehungintza, jantzigintza, oinetakoak eta larru-dendak	2,21	1,8	2,1
Farmazia, droguería, lurrin-dendak	0,60	0,4	0,5
Etxeko ekipamendua	0,85	0,5	0,8
Liburuak, egunkariak eta papertegia	0,39	0,3	0,4
Txikizkako beste dendak	2,29	1,7	2,2
Txikizkako jarduera, establezimenduz kanpo*	0,67	0,5	0,6
Guztira	11,42	8,6	10,8

*Iturria: Eustat, Irungo Udala, Hondarribiko Udala / *vending, azoka txiki ibiltarietako salmenta, online eta katalogoan zehar salmenta*


08.8. Turismoa

Behe Bidasoan eskaintzen diren establezimenduak eta ostatu plazak 2023

	Irun		Hondarribia		Behe Bidasoa	
	Establ.	Leku kop.	Establ.	Leku kop.	Establ.	Leku kop.
Hotelak	6	622	10	406	16	1.028
Pentsioak	4	146	2	20	6	166
Nekazal etxeak	1	12	5	53	6	65
Landa etxeak	3	30	6	78	9	108
Apartamentuak	-	-	3	68	3	68
Kanpinak	1	44	2	790	3	834
Aterpetxeak	1	60	1	152	2	212
Ostatuak guztira	16	914	29	1.567	45	2.481

Iturria: Bidasoa Turismo

Behe Bidasoan eskaintzen diren ostatu plazak 2023



■ Kanpinak	34 %
■ Apartamentuak	3 %
■ Landa Etxeak	4 %
■ Hotelak	41 %
■ Aterpetxeak	8 %
■ Pentsioak	7 %
■ Nekazal etxeak	3 %

Iturria: Bidasoa Turismo

08 URTEKARI SOZIOEKONOMIKOA / 2023

08.8. Turismoa

Batez besteko okupazioa eta batez beste emandako datuak Behe Bidasoako hoteletan	2023
--	------

media / máximo

Okupazio maila hoteletan %	73,89% / 93,43% (abuztua)
----------------------------	---------------------------

Emandako gauak (egun kop.)	1,62 egun
----------------------------	-----------

Iturria: Bidasoa Turismo

Ostalaritza establezimenduak Behe Bidasoan	2023
--	------

	Irun		Hondarribia		Behe Bidasoa	
	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%
Tabernak	125	42,1	27	26,5	152	38,1
Jatetxeak	165	55,6	73	71,5	238	59,6
Beste batzuk	7	2,3	2	2,0	9	2,3
Ostalaritza Guztira	297	100,0	102	100,0	399	100,0

Iturria: Eustat

08.9.

Garraioa eta azpiegiturak

08.9.1 Garraioa

Garraioa Behe Bidasoan	2023
Hiriko eta hiri arteko autobusak	Bidaiari kop.
Irun – Irun	1.905.434
Hondarribia – Donostia (N1)	1.054.982
Hondarribia – Donostia (AP8)	331.532
Hondarribia – Donostia (EHU)	120.011
Hondarribia – Ospitalea – Txingudi MG	94.315
Irun – Donostia (N1)	452.244
Irun – Donostia (EHU)	22.853
Hondarribia – Irun	1.125.122
Hondarribia – Anoeta	3.026
Hondarribia – Donostia (gauekoa)	56.009
Hondarribia – Irun (gauekoa)	21.240
Euskotren	
Irun	2.981.015
Donostia-Hendaia	9.518.749
Hiriko eta hiriarteko autobusak	
Eskualde artekoak	27.159
Linea handiak	29.622
Aldirikoak	624.763
Itsas Linea	
Hondarribia-Hendaia*	204.000
Donostia-Hondarribiko aireportua	
Bidaiariak	6.155
Operazioak	482.662

Iturria: AUIF, Ekialdebus, EuskoTren, Renfe, Jolaski* (azken datua), Aena

08 URTEKARI SOZIOEKONOMIKOA / 2023

08.9. Garraioa eta azpiegiturak

Errepideko merkantzien garraioan diharduten enpresak						2023
	Irun		Hondarribia		Behe Bidasoa	
	Enpresak	Kamioak	Enpresak	Kamioak	Enpresak	Kamioak
Ibilgailu arinak	92	127	12	19	104	146
Ibilgailu astunak	166	1.364	17	37	183	1.401
Guztira	258	1.491	29	56	287	1547

Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundia

08.9.2 Errepideetako trafikoa

Ibilgailuen eguneroko batez besteko zirkulazioa Behe Bidasoko errepideetan barrena		2023
Irungo ordainlekua (A8)	Ibilgailu kop.	
Donostiara bidean	22.281	
Frantziara bidean	21.565	
Guztira bi norabideetan	43.846	
Beste errepide batzuk*	2022*	
N-1	40.320	
N-638 (Irun-Hondarribia)	26.330	
N-121-A	15.453	

Iturria: Bidelan, Gipuzkoako Foru Aldundia
*Azken datua

08.10.

Zerbitzuak

Zerbitzuen establezimenduak, jarduera motaren arabera				2023
	Irún	Hondarribia	Behe Bidasoa	
Merkataritza, garraioa eta ostalaritza	1.941	421	2.362	
Informazioa eta komunikazioak	94	24	118	
Finantza jarduerak eta aseguruak	94	27	121	
Higiezin-jarduerak	104	32	136	
Jarduera profesionalak eta laguntzaileak	668	200	868	
Administrazio Publikoa, Hezkuntza eta Osasuna	492	157	649	
Jarduera artistikoak eta beste zerbitzuak	495	101	596	
Zerbitzuak Guztira	3.888	962	4.850	

Iturria: Eustat

08 **URTEKARI SOZIOEKONOMIKOA / 2023**

08.11.

Ekipamenduak

Ekipamenduak	2023
Kirol ekipamenduak	
Artaleku eta Azken Portu polikiroldegia, bazkide kopurua	11.354
Hondartza polikiroldegia, bazkide kopurua*	5.331
Hondarribiko Kirol Portua, eskalen kopurua	578
Hendaiaiko Kirol Portua, eskalen kopurua	1.185
Kultur eta aisialdi ekipamenduak	
OIASSO Erromatar Museoa, bisitari kopurua	32.388
Plaiandiko Parke Ekologikoa, bisitari kopurua (azkeneko datua)	13.106
Liburutegiak	
Carlos Blanco Aguinaga CBA Kultur Gunea	
• Bisitari kopurua	143.078
• Bazkide kopurua	34.243
Zuloaga Etxea	
• Bisitari kopurua	52.502
• Bazkide kopurua	6.532
Amaia Kultur Zentroa	
Erabiltzaileak	54.219
Jarduerak	385
Irungo Udal Musika Eskola eta Kontserbatorioa	
Konserbatorioa, ikasleak	90
Musika eskola, ikasleak	585
Ficoba, Erakustazoka	
Azokak/Erak.	12
Bilerak	248
Bisitariak	135.038

Esker onak

Aena – Donostia-Hondarribiko Aireportua

Auif

Deusto Unibertsitatea

Egailan

Ekialdebus

Euskotren

Eustat – Euskal Estatistika Erakiunea

Ficoba, Gipuzkoako Erakustazoka

Gipuzkoako Foru Aldundia

Gizarte Segurantzako Diruzaintza Orokorra

Hondarribiko San Pedroko Marinelen Kofradia

Hondarribiko Udala

INE

Irungo Udala

Jolaski

Lanbide

Mondragon Unibertsitatea

Nafarroako Unibertsitatea

Renfe

UPV / EHU



Bidasoa activa
Bidasoa bizirik